

MINBIZIA DUTEN HAURRENTZAKO JOLAS KOOPERATIBOAK IKASKUNTZA ZERBITZUAREN BIDEZ

GRADU AMAIERAKO LANA



Ikaslea: Pando Pérez, Haizea

Irakaslea: Vizcarra Morales, Maria Teresa.

2022

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan, gaixotasunak edota premia bereziak dituzten hurrek eskola-eremuko Gorputz Hezkuntzako saio askotan parte hartu ezin dutela aztertu ondoren, minbizia duten umeentzako tailer bat egingo da jolas kooperatiboetan oinarrituta. Honen bitartez, Gorputz Hezkuntzako saioetan dagoen egokitzapen txikiari kritika bat egitea da asmoa. Proiektu honen helburu nagusia haur guztiek Gorputz Hezkuntzako saio bakoitzean parte hartzeko eskubidea dutela erakustea da, eta horiek egokitu daitezkeela parte-hartzaileak dinamiketatik kanpo gera ez daitezen, talde osoaren inklusibotasuna bermatzeko intentzioarekin. Gainera, talde-lana, autonomia, empatia eta talde osoaren ongizatea bilatuko da. Esandako guztia ikaskuntza-zerbitzu baten bitartez gauzatuko da, haurren ongizate-testuinguruak garatzeko eta irakasleak prestatzeko gaitasunak garatzeko balio baitu. Ondoren, gertatutakoa aztertuko da eta proiektuan zehar ateratako emaitzak zehaztuko dira.

Hitz gakoak: Ikaskuntza zerbitzua; Gorputz Hezkuntza; Haur Minbizia; Aspanafoa; Jolas kooperatiboak; Inklusioa; Tailerra.

RESUMEN

En el presente Trabajo de Fin de Grado, después de analizar que los niños y niñas con enfermedades o necesidades especiales no pueden participar en muchas de las sesiones de Educación Física en el ámbito escolar, se llevará a cabo un taller con juegos cooperativos para niños con cáncer a modo de crítica a la poca adaptación que hay en las sesiones de Educación Física. El objetivo de este proyecto es demostrar que todos los niños y niñas tienen derecho a participar en todas las sesiones de Educación Física y que estas se pueden adaptar para que ningún participante se quede fuera de las dinámicas, con el fin de garantizar la inclusividad. Además, se buscará el trabajo en grupo, la autonomía, la empatía y el bienestar de todo el grupo. Todo esto se llevará a cabo a través de un servicio de aprendizaje, ya que sirve para desarrollar contextos de bienestar de los niños y niñas y para el desarrollo de las competencias en la formación del profesorado. Después, se realizará un análisis sobre lo sucedido y se especificarán los resultados obtenidos durante el proyecto.

Palabras clave: Servicio de aprendizaje; Educación Física; Cáncer infantil; Aspanafoa; Juegos cooperativos; Inclusión; Taller.

ABSTRACT

In the current Final Degree Project, after analyzing that children with special needs or illnesses cannot participate in many of the Physical Education classes in the school environment, it will be carried out a workshop with cooperative games for children with cancer as a criticism of the lack of adaptation of the Physical Education classes. The objective of this project is to demonstrate that all children have the right to participate in every Physical Education session and that these can be adapted so that no participant is left out of the dynamics, seeking inclusivity. In addition, we will look for group work, autonomy, empathy and well-being of the whole group. All these activities will be carried out through a learning service, as it is useful to develop contexts of children's well-being and for the development of teacher skills. Then, an analysis of what happened will be done and the results obtained during the project will be specified.

Key words: Service-learning; Physical Education; Childhood cancer; Aspanafoa; Cooperative games; Inclusion; Workshop.

AURKIBIDEA

LABURPENA	1
RESUMEN	1
ABSTRACT	2
1. Sarrera	4
1.1 Justifikazio pertsonala	5
2. Marko teorikoa	6
2.1. Ikaskuntza zerbitzua	6
2.2. Ikaskuntza Zerbitzua eta Gorputz Hezkuntza	7
2.3. Haur minbizia eta bere ezaugarriak	8
2.4. Gizarte laguntza haur minbizian	10
2.5. Haur minbizia eta Gorputz Hezkuntza	11
2.6. Jolas kooperatiboak	12
3. Helburuak	15
4. Metodoa	16
4.1. Prozedura	16
4.2. Testuingurua	19
4.3. Parte-hartzaileak	20
4.5. Esku hartzearen diseinua	21
4.6. Informazioa jasotzeko tresnak	23
5. Emaitzak	26
5.1. Esperientziak eta anekdotak	27
5.2. Harremanak	27
5.3. Nola sortu da planifikazioa?	28
5.4. Zein faktore egon dira planifikazioa prestatzeko eta aurkezteko orduan?	30
5.5. Zer nolako sentipenak eta kezak izan ditut?	32
6. Ondorioak	34
7. Erreferentziak	37
8. Eranskinak	40
I Eranskina: Esku hartzearen programazioa	40
II Eranskina: Saioaren sekuentzia fitxa	47
III Eranskina: Ebaluazio diana	48
IV Eranskina: Narrazio etnografikoak (ikertzailearen egunerokoa)	49
V Eranskina: Ebaluazio dianaren bi adibide.	58
VI Eranskina: Tailerrean ateratako argazkiak	59

1. Sarrera

Gratu Amaierako Lan honetan, Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologia erabilia, entitate baten beharrak asetzeko eman diren urratsak agertuko dira sakonki azalduta, baita jolas kooperatiboen bitartez garatutako helburuen eta balioen azterketa ere. Ikaskuntza zerbitzua, curriculum akademikoa komunitateari egindako zerbitzuarekin konbinatutako pedagogia mota da. Horretaz aparte, honen bidez, umeen ongizaterako eta garapenerako dinamikak prestatuko dira ere. Horretarako, jolas kooperatiboen bitartez, tailer bat eraman da aurrera. Honako hau praktikara eramateko, Aspanafoa elkartearekin elkarlanean ibili naiz eta esan daiteke, entitate honen beharra, haurtzat jarduera berriak prestatzea dela.

Aurkibideari jarraituz, Gradu Amaierako Lan hau zortzi ataletan banatzen da. Hasteko, sarrera lanaren nondik norakoak aipatuko dira. Jarraian, lan honen justifikazioa eta gaiaren garrantzia agertzen dira. Horren ostean, lan honi buruzko esparru teorikoa zehaztuko da, non ikaskuntza zerbitzuaren, haur minbiziaren, Gorputz Hezkuntzaren eta jolas kooperatiboen informazio zehatza agertuko da. Aurrekoaren haria jarraituz, prestatutako ikaskuntza zerbitzuaren helburuak azalduta daude eta ondoren, lanaren metodoa zehazten da. Atal honekin hasteko, GrAL-aren zehar izandako prozesua kontatzen da. Ondoren, parte-hartzaileen eta testuinguruaren informazioa ematen da. Hori gutxi balitz, datu bilketarako erabili diren tresnak zehaztuko dira eta analisirako erabili den metodoa ere azaltzen da, hain zuzen ere, sistema kategoriala.

Hurrengo puntuan, analisiaren metodoarekin lortutako emaitzak jaso dira eta zehazki aipatzen dira bertan, dimentsio eta azpi atal ezberdinetan antolatuta. Eta lanarekin amaitzeko, ondorioekin batera, etorkizuneko ildoak azalduko dira. Azkenengo atal honetan, lortutako emaitzak, esparru teorikoarekin alderatuko dira; horretaz gain, helburuak lortu diren zehaztuko da eta amaitzeko, hobekuntzarako proposamenak emango dira.

1.1 Justifikazio pertsonala

Zerbitzu-ikaskuntza hau aurrera eramatea erabaki dut, batez ere gradu amaierako lan praktiko bat egin nahi nuelako eta nire aletxoak jarri nahi nuelako nonbait. Gainera, lanean ikusiko dugun bezala, etorkizunean gustatuko litzaidake ospitale batean irakasle gisa lan egitea bertan ospitalizatuta dauden haurrak laguntzeko. Azken hori izan da proiektu hau burutzeko aukeratu dudako elkartearen erabakia hartzerantz bultzatu nauena.

Aukeratutako gaiari dagokionez, txikia nintzenean eta Lehen Hezkuntzan nengoenean, ikaskide batek minbizia izan zuen. Ikaskide horrek askotan bankuan eserita geratu behar zen Gorputz Hezkuntzako saioetan proposatutako dinamikak beste ikaskideak nola egiten zituzten begira, berak ezin zituelako egin. Uste dut garrantzitsua dela errebindikatzea haur guztiek Gorputz Hezkuntzako saio guztietan parte hartzeko eskubidea dutela. Horietako bakar batek ere ez du sentitu behar baztertuta bere baldintza fisikoengatik edota psikologikoengatik; izan ere, irakasleak saio bakoitza egokitu dezake gela bakoitzean inklusioa bilatzeko eta haur guztiak taldeko kide sentitzeko.

2. Marko teorikoa

Gratu Amaierako Lanarekin hasi baino lehen eta proiektu hau ulertzeko garrantzitsua dela jakiteaz gain, Ikaskuntza Zerbitzua zer den eta horretaz aparte, honen nondik norakoak argi izan behar ditugu. Hori gutxi balitz, ezagutu behar dugu zein den ikaskuntza-zerbitzu batek eta Gorputz Hezkuntzaren ikasgaia izan dezaketen lotura estua. Azkenik, lan hau bideratuta egongo da minbizia duten haurrei eta haur minbiziaren kontzeptua ezagutaraztea ezinbestekoa ikusi da, beraz, definizioa, gaixotasun honen ezaugarriak, tratamenduak eta gizarte laguntzaren garrantzia gaixotasun honen aurrean zehaztuko dira, baita Heziketa Fisikoak minbizia duten haurrengan izan ditzakeen onurak ere.

2.1. *Ikaskuntza zerbitzua*

Ikaskuntza Zerbitzua curriculumaren helburuak eta komunitateari zerbitzua emateko helburuak uztartzen dituen hezkuntza-praktika berritzailea da, mundu mailan hedatzen jarraitzen duen modalitatea, hain zuzen ere. Ikasteko eta gizartea eraldatzeko tresna honi esker, ikasleek inguruko premietan jarduten duten bitartean ikas dezakegu, hau da, modu praktikoan. Gainera, zerbitzu honen helburu nagusia hobekuntza-ekintzen bitartez errealitatea eraldatzea dela esan dezakegu, eta aldi berean, zerbitzua eskaintzen dugunok esperientziari buruzko gogoeta sakona eta modu egituratuan egin dezakegu (Aramburuzabala, 2013).

Ikaskuntza-zerbitzuak ikasleak prozesuaren une guztietan aktiboki parte hartzea eskatzen du. Horrekin batera, aukera ematen digu ikasleoi, gure burua ezagutzeaz gain, gure ikaskideekin interaktuatzeko, enpatia sortzeko, komunikazio-trebetasunak lantzeko eta, azken batean, irakasleekiko elkar-lana optimizatzeko estrategiak izugarri indartzeko aukera ematen digu. Honekin batera, esan beharra daukat lan honetarako ikaskuntza zerbitzua aukeratu dudala, honako premia hauek ase ditzakeelako: gaitasun profesionalen garapena, parte-hartze aktiboa izatea, pertsonalitate efikazaren hobekuntza eta herritarren prestakuntza (Chiva-Bartoll et al., 2018a).

Proiektu hau Ikaskuntza Zerbitzuarekin egitea erabaki dut, esperientziaren bidez hezkuntza-lanari buruzko ezagutzak lortzea askoz ere handiagoa eta esanguratsuagoa delako. Zerbitzuaren bitartez, ikasleok ikasi eta garatu ahal izango ditugun tresna eta estrategia didaktikoak asko dira. Lehenengoa, ikaskuntza gatazkak kudeatzea da. Ikasgelan ager daitezkeen arazoak konpontzen ikastea oinarritzko ezaugarria da edozein

irakaslerentzat. Gatazken kudeaketarekin lotuta, hurrengo ikaskuntza agertzen da, egokitzeko gaitasuna, hain zuzen ere. Irakasleek egunero-egunero egin behar dituzte egokitzapenak, jardueren garapena errazteko, helburuak lortzeko, onurak handitzeko, etab. Materialik eza edo haur baten mugikortasun falta dela eta, adibidez: Oso zaila da saio bat planifikatu den bezala aplikatu ahal izatea, inolako aldaketarik egin gabe. Beste ikaskuntza akademiko bat ebaluazioa da. Irakasle guztiek modu zuzen eta eraginkorren ebaluatzeke gai izan behar dute. Esperientziaren bidez, ebaluatzeke gaitasuna erakusten da, proposatutako jarduerak eta haurren exekuzioa baloratu behar dute eta egindakoaz hausnartu. Modu egokian baloratzeko, autokritikarako gaitasuna garatu behar da, akatsak eta gabeziak aztertuz. Ebaluatzeaz gain, taldean lan egiteko gaitasuna ere ikasten da ikaskuntza-zerbitzuarekin, ikuspegi global batetik jarduteko aukera eskaintzen du, baita koordinazio- eta lankidetzat-trebetasunak ere (Capella et al., 2014). Behin Ikaskuntza Zerbitzua zer den eta honen onurak argi geratu direla ikusita, Ikaskuntza Zerbitzuaren eta Gorputz Hezkuntzaren arteko lotura aztertuko dugu. Baina horrekin hasi baino lehen, Heziketa Fisikoaren nondik norakoak ikasgai honen garrantzia eta onurak azalduko dira.

2.2. Ikaskuntza Zerbitzua eta Gorputz Hezkuntza

Heziberri 2020 dekretuan agertzen den moduan, Gorputz Hezkuntzak, kompetentzia motorren bitartez, oinarrizko kompetentzia guztian lantzen laguntzen du. Kompetentzia motorra lantzeko, gorputza, bere dimentsio guztietan, eta jokabide motor autonomo eta zehatza oinarrizko elementuak dira. Landuko diren hezkuntza-dukien bitartez, oinarrizko hainbat ezagutza, jarrera eskuratuko dituzte ikasleek bizitza aktiboa eta osasungarria izateko, ongizate psikosoziala iristeko, eta ikaskideekiko eta ingurunearekiko elkarreragina hobetzeko haien bizitzaren esparru guztietan. Lehen Hezkuntzan, metodologia ohikoena jolasen eta kirolen bidezkoa da. ikasleak portaera motor autonomoa izateko behar dituzten ahalmen eta trebetasun fisikoak landu daitezke biak tresna aproposak baitira.

Irakasgai horren onurei dagokienez, bi bloketan bana ditzakegu. Alde batetik, maila fisikoko onurak norberaren gorputzaren ezagutza eta kontrola lortzera bideratuta daude, eta hori erabakigarria da norberaren gorputzaren irudia garatzeko eta ondorengo ikaskuntza motorrak eskuratzeko. Eta bestetik, maila psikologikoko onurek estresari emandako erantzun fisiologikoak arintzen dituzte, eta sintomatologia psikikoa hobetzen dute tentsioari eta antsietateari dagokienez. Gainera, suminkortasun eta agresibitate egoerak hobetzen ditu (Gonzalez, 2011). Gorputz Heziketa irakasgaiak hitz egiten dugunean, ezinbestekoa da

aipatzea oso harreman estua duela osasunarekin eta ongizatearekin. Gainera, umeeek bizitza osasuntsua izaten, elkarrekin harremanetan jartzen eta erabakiak hartzen ikasten dute. Era berean, garrantzitsua da eskolako Lehen Hezkuntzako adinetan osasuna sustatzeko funtsezko zentro gisa aipatzea, gutxienez eskolatzea nahitaezkoa den herrialdeetan. Haur guztiek, haien ezaugarri pertsonalak alde batera utzita, jarduera fisikoetan parte hartzeko edo kirol desberdinak egiteko aukera duten leku bakarra eskola dela da arrazoï nagusia (Devis eta Peiró, 1993). Beraz, guzti hau esanda, Heziketa Fisikoa ikaskuntza zerbitzua erabiltzeko jakintza-eremu egokia dela uste da, praktika handiko irakasgaia delako, sortzen dituen elkarreragin pertsonalen aberastasunagatik eta edukien zabaltasuna eta moldagarritasunagatik (Capella et al., 2014).

Lehen esan dugun bezala, Ikaskuntza Zerbitzua gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapena azpimarratzen du, eta bi horiek heziketa fisikoaren irakasgaietan lantzen dira. Horregatik, Gorputz Hezkuntzaren arloan, Ikaskuntza Zerbitzua metodo pedagogiko erabilgarrienetarikoa bat da; izan ere, ikasleek bizitako esperientziak ikaskuntza berriak eskuratzeaz aparte, arreta handiagoa jartzen dute herritarren eta gizartearen prestakuntza errazteko (Chiva-Bartoll et al., 2018b). Beraz, Proiektu hau kolektibo ezberdinen gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetzeko tresna nagusitzat jotzen da, kirola eta jarduera fisikoa eginez. Aldi berean, inplikaturako ikasleek hainbat irakasgaitako curriculum-edukia lantzen dute, besteei zerbitzua eskainiz (Ruiz-Montero, 2021)

Ondorioz, Ikaskuntza Zerbitzua eta Gorputz Hezkuntza lotzen baditugu, egile askok aitortzen dute egokia dela, batez ere irakasgai praktikoa delako eta eskola inklusioko testuinguruetan eduki ugari sartzen direlako. Horrez gain, aplikatzekoak diren hainbat gizarte-testuinguru aurki daitezke ikaskuntza zerbitzuaren bitartez, ikaskuntzak sortzeko, eta errealitatean sartzeko aukera ematen dute, hezkuntza-balio handiarekin (Rivera-Garcia et al., 2021). Zerbitzu Ikaskuntzaren nondik norakoak eta Heziketa Fisikoarekin zein loturak dituen ulertu ondoren, minbizia ariketarekin eta mugimenduarekin lotu aurretik, garrantzitsua da gaixotasun honen ezaugarri nagusiak, ageri diren mota ezberdinak eta prozesu luze horretan haurrei eta familiei nola eragiten dien jakitea.

2.3. Haur minbizia eta bere ezaugarriak

Hasteko, minbizi mota guztietan, gorputzeko zelula batzuk zatitzen hasten dira kontrolik gabe, hurbileko ehunetara hedatuz. Oro har, zelula berriak sortzen dira behar diren heinean, hiltzen diren zelula zaharrak ordezkaturik. Batzuetan, prozesu hori ez da espero bezala

gertatzen, eta orduan agertzen da gaixotasuna. Zelula berriak sortzen dira behar ez direnean, eta zelula zaharrak ez dira hiltzen behar luketenean, beraz, zelula gehigarriek tumore bat osa dezakete. Tumoreak onberak edo gaiztoak izan daitezke. Tumore onberak ez dira minbizia; gaiztoak, berriz, bai. Tumore gaiztoen zelulek hurbileko ehunak inbaditu ditzakete. Gainera, metastasiaren bitartez gorputzeko beste atal batzuetara heda daitezke. Minbizia hazi ahala, pertsona ahuldu egiten da, organoak eta hezurak kaltetzen ditu eta gorputzak beste gaixotasun batzuen aurka borroka dezan zailtzen du (Powell, 2018).

Haurrek minbizia izan dezakete helduen gorputzeko atal berdinetan, baina desberdintasunak daude. Haurren minbizia bat-batean gerta daiteke, sintoma goiztiarrik gabe, eta sendatze-tasa altua du. Haurren minbizi arruntena leuzemia da. Haurrei eragiten dieten beste minbizi mota batzuk garuneko tumoreak, linfoma eta ehun biguneko sarkoma dira (Powell, 2018).

- Leuzemia → Neoplasien %25-30 da 14 urtetik beherakoen artean, eta lehen esan bezala, haurtzaroko minbizirik ohikoena da. Haurren leuzemiak sintoma ez-espezifikoeekin agertzen dira, beraz, ohikoa da diagnostikoa sintomatologia hasi zenetik atzeratzea. Hala eta guztiz ere, leuzemiaren sintomatologia bereizgarria muineko infiltrazioaren mende dago, eta, gainera, organo estramedularrak infiltratzea eragozten du. Helduak ez bezala, zaila da berez minbizia iradokitzen duten sintomak aurkitzea (Garcia eta Badell, 2012).

- Garuneko tumoreak → Gorputzeko beste eremu batzuetan kokatutako garuneko osagaietatik edo tumore-zeluletatik eratorritako zelulen kontrolik gabeko hazkundera da. Urtero 1.500 minbizi-kasu berri inguru erregistratzen dira Espainian 15 urtetik beherako haurren artean. Tumore horien jatorrian, faktore etiologikoen hainbat multzo bereiz ditzakegu: herentziazko sindromeak, erradiazio ionizatzaileak, inmunosupresioa, familia-joera, birusak eragindako neurokartzinogenesisia edo ingurumen-esposizioak (Powell, 2018).

- Linfoma → Linfomak hirugarren neoplasia ohikoena dira adin pediatrikoan, leuzemien eta nerbio-sistema zentralako tumoreen atzetik. Gaur egun, linfomak diagnostikatutako haurren % 81ek bizirik irauten du Europan. Linfomak gaixotasun gaiztoak dira, linfoide zelulen ugartze neoplasikoaren ondorioz. Leuzemiekin ez bezala, zelula hematopoietikoak hezur-muina utzi dutenean gertatzen da linfometako gaiztotze-prozesua (Sánchez de Toledo eta Sábado, 2012).

- Ehun biguneko sarkoma → Ehun bigunetan sortutako tumore gaiztoak dira, eta neoplasien multzo zabala osatzen dute, alderdi kliniko, ebolutibo eta anatomia patologikoetan duten antzekotasunaren arabera taldekatuta. Ez dira oso ohikoak, eta kirurgia eta erradioterapia egin behar izaten dira, batzuetan kimioterapiarekin. Hori guztia hainbat faktoreren mende dago, hala nola, egoera klinikoa, maila histologikoa, tumorearen tamaina eta kokapena (Migotto et al., 2000).

Sintomak eta tratamendua minbizi motaren eta aurreratuaren arabera izaten dira. Tratamenduen artean aurki ditzakegu kirurgia, erradioterapia, kimioterapia, zelula amen transplanteak edota terapia gidatua. Terapia gidatuak medikamentuak edo bestelako substantziak erabiltzen ditu minbizi-zelula espezifikoetara aurre egiteko, zelula arruntei kalte gutxiago eragiten dutenak (Powell, 2018).

Haurren minbizi mota ohikoenak azaltzeaz eta tratamendu mota desberdinak aipatzeaz gain, garrantzitsua da gaixotasun horrek familia-bizitzan eta familiako kideen bizitzan duen eraginean arreta ere jartzea.

Minbizia duen seme edo alaba batek jasaten duen tratamendua familia-bizitza eteten du, baita prozesu horretan parte hartzen duen kide bakoitzarena ere, umea arreta gune nagusia bihurtzen baita. Familia osoarentzat haurra zaintzea eta behar duen laguntza emozional guztia ematea lehentasun nagusia da. Hala ere, gaixotasunak familia-harremanei ere eragiten die, ospitaleratzeak eskatzen duen banantze fisikoa dela eta. Beraz, prozesu hori ahalik eta hoberen eramateko, garrantzitsua da familia-kohesioa, baliabide ekonomikoak eta familia-erantzukizunak berrantolatzeke trebetasuna, gizarte-laguntza bilatzea eta aurre egiteko modu aktibo bat izatea (Vilató et al., 2018).

Hori gutxi balitz, guraso askok uste dute beren seme-alabek, minbizia dutenez, zailtasunak izan ditzaketela harreman-esparruan batez ere eskola eremuan ikaskideekin. Haien irudia aldatu egiten da tratamenduen ondorioengatik, eskola-inguruneke absentzia luzeengatik, izan ditzaketen muga fisikoengatik (mina edo nekea, esate baterako), kirola egiteko arazoengatik edota eskolaz kanpoko beste jarduerak batzuetan ezin dutelako parte-hartu (Davies et al., 1991).

2.4. Gizarte laguntza haur minbizian

Minbizia duten haurren familia-egoera xeheetasunez azaldu ondoren, eta haur horiek eskola-eremuan izan ditzaketen zailtasunak aipatu ondoren, gaixotasun horren prozesuan

gizarte-laguntzak duen garrantzia azalduko dugu, bai hurrek, bai haien familiek behar dutena. Baina ezer baino lehen, garrantzitsua da gizarte-babesaren onurak ezagutzea eta termino horren definizio labur bat egitea.

Osasunaren ikuspegi biopsikosoziaketik, gertuko gizarte-harremanak izatea osasun-arazoei aurre egiteko oinarritzko baliabidea dela uste da. Gainera, "Gizarte laguntza" terminoa beste pertsona batzuek baloratua izatearen eta gizarte-sare bateko kide izatearen sentimendu gisa uler daiteke. Gizarte-babesak eragina izan du osasun eta gaixotasun prozesuekin lotutako hainbat alderditan; besteak beste, estresari aurre egiteko moduan, gaixotasunaren progresioan eta errekupeazioan, eta sendatze postkirurgikoan. Horregatik, gizarte-babes eskasa arrisku-faktoretzat har daitekeela baieztatu da (Barra, 2004).

Gizarte-laguntzak funtzio desberdin asko betetzen ditu, eta hurrengo hiru motatan biltzen dira: funtzio emozionala, zaintza eta intimitatea bezalako alderdiekin lotutakoa; informazio-funtzioa, aholkuak eta orientazioa barne hartzen dituena; eta, azkenik, funtzio instrumentala, zuzeneko laguntza izatea dakarrena. Funtzio mota guzti horiek gizabanakoaren ongizaterako garrantzitsua izan daitezke baina, laguntza emozionala garrantzitsuena dela pentsatzen da, bereziki gaixotasun larrien testuinguruan, batez ere minbizian (Barra, 2004).

Horretaz aparte, beharrezkoa da aipatzea minbizia duten haurren gurasoek estres-maila handiagoak izaten dituztela ospitalera egindako bisitei lotutako egoerei dagokienez eta gaixorik dagoen semea zaintzeari dagokionez. Gainera, kezka eta ziurgabetasuna sentitzen dute gaixotasunaren eta etorkizunaren inguruan. Estres maila horiek jaisteko eta ongizate-sentsazioa bultzatzeko, aitona-amonen laguntza esanguratsua izaten da, etxeko adingabeen zaintzan duten inplikazioa oso ohikoa baita gaur egun. Aitona-amonen laguntzaz gain, gainerako seme-alaben laguntza izateak estresa moteltzen du eta ongizate handiagoa izatea errazten du (Pozo et al., 2012)

2.5. Haur minbizia eta Gorputz Hezkuntza

Jarduera fisikoa onuragarria da gure osasunerako bi arrazoiengatik. Alde batetik, energia-gastua handitzen duelako, eta, horri esker, koipe-deposituak murriztu egiten dira. Bestetik, profil metabolikoa hobetzeko aukera ematen du, insulinarekiko sentikortasuna handituz, bai epe laburrean, bai epe luzean, eta muskulu-masa handituz. Horrek eragin onuragarria du maila kardiobaskularrean eta egoera fisikoan (Alvarez-Pitti et al., 2020).

Aurrekoan aipatutakoaz aparte, jarduera fisikoak eta ariketa fisikoak bizi-kalitate globala hobetzen dute, haur eta nerabe osasuntsuetan gaixotasunak agertzea saihesten dute eta haurtzaroan gaixotasun kronikoak komunetak tratatzeko balio du, hala nola minbizia (Alvarez-Pitti et al., 2020).

Minbiziaren tratamenduan zehar, hainbat aldaketa gertatzen dira bizimoduan, eta horien artean nabarmentzen da askotan, jarduera fisikoa murriztu egiten dela, gorputz-konposizio osoaren alterazioak eraginez. Gainera, ebidentzia nahikoak daude jarduera fisikoak pazientearen osasunean modu hauetan eragiten duela baieztatzeko: minbiziarekin lotutako nekea gutxitzen duela, muskuluen indarra eta bizi-kalitatea hobetzen dituela eta minbizia duten haurren jarduera fisikoaren autoeraginkortasuna hobetzen du. (Albujar, 2020)

Gaixotasunik izan ez arren, ariketa fisikoa edo kirola egiteak gizakiari onura fisiko, psikologiko eta sozial garrantzitsuak ekartzen dio. Horretaz aparte, pertsona baten heziketa integralerako funtsezkoa dela esan dezakegu. Kirolaren bidez hainbat ezaugarri sortzen dira, hala nola leialtasuna, lankidetzeta, balioa, borondate-indarra, norberaren burua menderatzea, erresistentzia, pertseberantzia edo determinazioa. Beraz, garrantzi handia du hezkuntzan eta prestakuntzan. Kirola hezkuntzarako, osasunaren sustapenerako, estresa arintzeko, sentazio berriak bilatzeko, gozatzeko eta gizarte-harremanetarako bitartekotzat hartu behar da. Guzti hau esanda, kirol-jarduerak autoestimua sendoagoa eraikitzen du, eta praktikatzen duenaren eskola-errendimendua eta bizi-kalitatea hobetzen ditu (Alvarez-Pitti et al., 2020).

2.6. Jolas kooperatiboak

Lehen aipatu dugun bezala, minbizia duten haurrek zailtasunak izaten dituzte eskolan harremanak izateko. Beraz, minbizia duten haurrekin ikaskuntza zerbitzu hau aurrera eramateko jolas kooperatiboen bitartez tailer bat aurrera eramatea proposatu da. Hau esanda, garrantzitsua da jakitea zer diren jolas kooperatiboak, zer nolako ezaugarri eta onura dituzten, ikaskideen arteko harremanak hobetzeko baliagarriak izan daitezkeelako.

Jolasak, oro har, eragin handia du haurren garapenaren alderdi guztietan. Haurrak jolasten ari den heinean, trebetasun fisikoa garatzen. Eta mugimen-trebetasun finak jokoaren objektuak manipulatzeko garatzen dira. Adimen-trebetasunei dagokienez, arazoak konpontzea eta kausa-efektu erlazioak sustatzen dituzten jolasak aktibatzen dira. Gainera, gizarte-trebetasunak jolasaren bidez ere menderatzen dira azalpenak jarraitzen, lankidetzan

aritzen, txandaren zain egoten, arauak betetzen eta partekatzen ikasten dutenean (Torpoco, 2017).

Askotariko jolasak daude baina guk, jolas kooperatiboetan zentratuko gara. Bi jokalaria edo gehiago helburu bera lortzen ahalegintzen direnak. Hau da, jokalaria-taldeek jokabide kooperatiboak lantzeko jolasak dira, non jokalariek estrategiak aukeratzen dituzten erabaki adostuen bitartez.

Jolas kooperatiboek berdinen arteko harremanak, erantzukizun indibidual eta kolektiboak, sormena, gatazken konponbidea, komunikazioa, talde-lana eta abar garatzeko aukerak sortzen dituzte, lankidetzaren bitartez. Horrelako jolasen ezaugarri garrantzitsuenetako bat jarrera positiboak bilatzen dituen da, eta jarrera horiek gizartearen bizikidetzara hobe eta giza nortasunaren garapen osoagoa ahalbidetzen dute (Cerdas, 2013).

Pediatría-adinean dauden paziente onkologikoek, tratamenduan zehar eta tratamenduaren ondoren ere, inpaktu emozional handiak izaten dituzte, eta eragin horiek baraien bizitzaren ingurunean esku hartzen dute. Haurrek ospitaletik ateratzen direnean, arazoak izaten dituzte egokitzeke, beren jarduerak praktikatzeari uzten diote normalean, eta arbuioa sentitzen dute nolabait (Cabrera, 2019). Jolas kooperatiboetatik abiatuta eta horiek dituzten helburuak ikusita, minbizia duten edo izan duten haurrek, bestelako ikaskideekin interakzioak garatzea bilatzen da gehienbat. Gainera, Jolas kooperatibo bidez lantzen diren tailerretan, gozamina, askatasuna eta parte-hartzea eragiten dituen prozesu bat sortzen da, ohikoa ez den espazio batean. Gainera, interakzio sozioafektiboak azalerratzeko ahalbidetzen dute, eta horrek, harreman afektibo eta solidarioak garatzea dakar, elkar ulertzea, empatia eta erantzukizun komunaren zentzua sortzea ahalbidetzen dutenak. Hau da, aipatzen dugun lankidetzak helburu komunak bilatzeari egiten dio erreferentzia, lan kooperatiboa dakar berekin, guztiongan pentsatzea, eta ez interes indibidualetan, baina bai helburu komunak lortzeko ekarpen indibidual bakoitzaren aberastasunean. Ekarpene indibidual horrek taldeari errespetuz ekarpena egiteko erantzukizuna bere gain hartzea dakar (Cerdas, 2013).

Horretaz aparte, garrantzitsua da jakitea prestatzen ditugun jolasak kooperatiboak izan daitezkeen eta gure ikasleek haiengandik ikas dezaten, hurrengo funtzeko bost elementu izan behar dituzte. Lehenik eta behin, ikasleek elkarrekintza, hau da, taldeko kideek elkarren arteko harremanak zuzenean egon behar dira jolasean zehar; bigarrenik, interdependentzia positiboa, hau da, ezarritako helburua lortzea talde-lanari lotuta dago zuzenean; hirugarrenik, erantzukizun indibiduala (taldeko kide bakoitzak erantzukizun zuzena du, eta guztion

onerako gauzatu behar du); laugarrenik, taldeko erabaki guztiak adostea da, hau da, taldeko erabaki guztiak elkarrekin eztabaidatzea, eta, beste hitz batzuetan esanda, taldeko kideen artean eztabaidatzea; eta azkenik, gizarte-trebetasunak izatea, hala nola entzuten ikastea, txandak errespetatzea, taldea animatzea eta ideiak kritikatzeko, eta ez pertsonak (Fernández-Río et al., 2016)

Gainera, garrantzitsua da aipatzea jolas kooperatiboek motibazio handia bat sortzen dutela gure ikasleengan. Bi motibazio mota ezagutzen ditugu. Alde batetik, motibazio intrintsekoa jarduera batekin konprometitzea da, horrek dakarren atseginagatik, inolako saririk espero izan gabe, norberaren interes, gozamen eta gogobetetze sentimendu soilagatik. Bestetik, norbaitek sari bat lortzeko, zigorra saihesteko edota obedientziagatik jardueraren bat egiten duenean, kanpoko motibazioarekin erlazionatzen da. Azkenik, desmotibazioa motibazio intrintseko eta estrintseko gabeziarekin lotzen da, eta horrek esan nahi du ikaslea ez dela jarduera egiteko gai sentitzen. Azken batean, motibazioa beharrezkoa da ikasle guztien parte-hartzea sustatzeko, haien ezaugarri, behar eta interesen arabera zereginak proposatuz (Navarro-Patón et al., 2017).

Honako hau esanda, irakasleak kontuan izan behar du gozatzea funtsezkoa dela ikasleek eskola-testuingurutik kanpo jarduera fisikoaren ohiturak har ditzaten, eta hori errazagoa da zeregin motibatzaileekin eta ikaskuntza esanguratsuak sustatzen dituztenekin, hala nola, jolas kooperatiboak (Navarro-Patón et al., 2017).

3. Helburuak

Zerbitzuaren diseinuarekin hasteko, nahitaezkoa da helburu orokorrak eta helburu profesionalak aipatzea. Alde batetik, lan honekin lortu nahi duguna zehazteko eta bestetik, profesionalki zein gaitasun garatuko diren ikaskuntza zerbitzuaren bitartez.

HELBURU OROKORRA: Ezaugarri fisiko edota gaixotasun desberdinak dituzten haur guztientzat egokia den jarduera fisikoaren proposamena ezagutarazi, inklusibotasuna bilatzeko eta haurrik baztertuta ez sentitzeko, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko GrALaren bitartez. Hori gutxi balitz, ikaskuntza zerbitzu baten bitartez, gizartearen errealitate txiki bat eraldatzea eta esperientzi honen bitartez hezkuntza-lanari buruzko ezagutzak berriak bereganatzea.

HELBURU PROFESIONALAK:

- Modu egokian baloratzea eta autokritikarako gaitasuna garatzea, akatsak eta gabeziak aztertuz.
- gaitasun profesionalen garapena lortzea eta parte-hartze aktiboa izatea.
- Lanerako prestakuntza autonomoaren hobekuntza eta herritarren prestakuntza lortzea.
- Ardura soziala bereganatzea
- Komunikazio trebetasunak garatzea.
- ODS-ren helburu batzuk garatzea (laugarrena eta hamargarrena, hain zuzen ere).

4. Metodoa

Lan hau Campus Bizia Lab (CBL) proiektu batean kokatuta dago, UPV/EHUko iraunkortasuneko zuzendaritzak finantzatutakoa, hain zuzen ere. Horretaz aparte, hainbat ODS 'Objetivos del Desarrollo Sostenible' garatzeko gauzatu da lan hau. Aipatutako azken programa honetako bi helburu azaleratzen dira bertan. Alde batetik laugarrena, "kalitatezko hezkuntza" eta bestetik, hamargarrena "desberdintasunen desagertzea".

Beraz, atal honetan, zerbitzuaren diseinua aurrera eramateko erabilitako metodoa azalduko da. Horretarako, egindakoaren prozedura eta eszenatokiaren deskribapen sakon bat agertuko da. Ondoren, ikaskuntza zerbitzua egiteko aukeratu den entitatearen ezaugarriak zehaztuko dira, ASPANAFOAren ezaugarriak, hain zuzen ere. Esku-hartzea egindako taldearen ezaugarriak eta bestelako partaideenak aurkeztuko dira; horrekin batera, aurrera eramandako saio diseinuaren nondik norakoak azalduko dira. Eta amaitzeko informazioa lortzeko erabilitako tresnak zehaztuko dira.

4.1. Prozedura

Gratu Amaierako Lanaren ikaskuntza zerbitzua aurrera eramateko, irakasle talde bat sortu da azkenengo urteetan gure fakultatean. Ekimen oso arrunta ez denez, proiektu honetan parte hartu dugunok bilerak egin ditugu prozesu osoan zehar. Lehenengo bilera, ikaskuntza zerbitzua zer den eta zein nolako aukerak ditugun hori praktikan jartzeko azaldu ziguten irakasleek. Ondoren, hurrengo bilera guztietan gure lanaren nondik norakoak azaldu dizkigute eta talde moduan, galdera egiteko eta erantzuteko tarteak ere izan ditugu.

Ikaskuntza-zerbitzuaren prozesuari hasiera emateko, nire interesekoak ziren eta nire gustuekin bat zetozen premiaren bat zuten zenbait elkarterekin harremanetan jarri nintzen. Hasieran, "GOIAN" elkartearekin jarri nintzen kontaktuan. Gasteizko alde zaharrea dagoen gizarte eta hezkuntza proiektua da. Aisialdirako lanak egiten dituzte, auzoko hurrek talde-edo kultura-proiektuetan parte har dezaten, programazio sakon baten bidez.

Lan aberasgarria izan zitekeen, baina etorkizunean gaixotasunak dituzten hurrekin lan egitea gustatuko litzaidake. Horregatik, beste bi elkarterekin jarri nintzen harremanetan. Alde batetik, garuneko paralisiaren elkartearekin (ASPACE) eta bestetik, Arabako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartearekin (ASPANAFOA). Bilera bat izan nuen erakunde bakoitzeko gizarte-langileekin, eta, azkenean, Aspanafoa elkartearekin aukeratu nuen nire ikaskuntza-zerbitzua egiteko. Buruan nuen ideia erakunde horren beharrekin gehiago

zatorrela. Horrez gain, graduaren bigarren mailan, haurren minbiziari buruzko lan bat jorratu genuen “zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan” ikasgaiari, eta erakunde honetako gizarte-langilearekin elkarrizketa bat izan genuen. Esperientzia ona izan zenez eta behar izan genuen guztiarekin lagundu zigutenez, komenigarria iruditu zitzaidan haur horiekin esperientzia on bat izatea, haiek guri iraganean eskeini ziguten bezala.

Gizarte-langileak jakinarazi zidan edozein jarduera mota onuragarria zela haur horientzat, eta batez ere talde-lana behar zutenentzat. Tailer bat sortzeko beharra ikusi nuen, non beraiek talde moduan ados jarri beharko luketen, hainbat dinamika aurrera eramateko.

Gizarte-langileak transmititutakoaz gain, esparru teorikoan ikusi ahal izan dugunez, haurren minbizia bezalako gaixotasunetan gizarte-babesa oso garrantzitsua da. Beraz, ez zegoen aukera hoberik guztiek parte har dezaketean jolas kooperatiboak parte hartzeko eta ahalegin fisiko handirik behar ez dutenek baino.

Prozesu hori guztia aurrera eramateko, gizarte-langilearekin eta elkarteko lehendakariarekin harremanetan jarri nintzen, elkartearen beharrak ikusteko eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak biltzeko batez ere. Biek esan zidaten bezala, ados zeuden eskola askotan ez dutela kontuan hartzen ikasle bat gaixorik dagoenean edo behar bereziak dituen Gorputz Hezkuntza saioetan parte-hartzeko. Beraz aukera ona izango zela honako hau aldatu daitekeela erakusteko.

Garrantzitsua da bizi izandako prozesu guztia kronograma zehatz batean antolatzea, geure burua kokatzeko eta prozesu osoa bere osotasunean ikusteko. 1 taulan ikus dezakegunez, bost bilera izan ditugu eta bakoitzaren helburua zehatza agertzen da bertan (zalantzak argitzeko telefonoz egindako elkarrizketez gain). Azkenik, jolas kooperatiboan bitartez sortutako tailerra aurrera eramanez, eta bizi izan dituzten egoera zail horien aurrean hurrek eta gurasoek emandako testigantzak ezagutu ahal izan nituen.

Tailerra aurrera eramanez egunean, aldaketa batzuk egin behar izan nituen, parte-hartzaile gutxi agertu baitziren. Agertu behar zuten zortzi haurretatik bi bakarrik etorri ziren. Saioaren diseinuan ikusi dugunez, nire asmoa lau pertsonako bi talde egitea zen, joko bakoitzean puntuak pilatzen joateko.

FASEAK	Otsaila				Martxoa				Apirila
	1.as	2.as	3.as	4.as	1.as	2.as	3.as	4.as	1.as
1. Bilera: elkartearekin lehen kontaktua izan eta zein behar zituzten ikustea.									
2. Bilera: nire proposamena elkartearen lehendakarira helaraztea.									
3. Bilera: Nire proposamena onartu eta tailerrerako data jarri.									
4. Bilera: Ikasleen ezaugarri bereziak zehaztea.									
5. Bilera: Beharrezkoa den materiala zehaztea eta aretoa ikustea									
Tailerra aurrera eraman									

1 Taula: Kronograma, proiektuaren antolaketa. (Iturria: neuk egina)

Prestatu nuena burutzeko bi parte-hartzaile baino ez nituela ikusita, saioaren metodologia erabat aldatzea bururatu zitzaidan, etorritako haurrak tarte atsegin bat pasatzeko eta piraten paperean sartzeko aukera izan zezaten. Taldekako puntuak batu beharrean, bi parte-hartzaileek erronka pila bat bete beharko lituzkete altxorraren bilaketara iristeko.

Metodologia aldatzeaz gain, soberan genuen denbora betetzeko erronka batzuk ere gehitu behar izan nituen momentuan bertan. Azken finean, dinamiken iraupena askoz parte-hartzaile gehiagorentzat kalkulatuta zegoen, eta bi parte hartzaile baino ez zirenez, askoz denbora gutxiago behar izaten zuten dinamika bakoitzaren helburua lortzeko eta hura bukatzeko.

Azken unean sortu ziren aldaketaz gain, saioaren sekuentzian hiru erronka kooperatibo gehiago koadratzea lortu nuen, eta ebaluazioa hain haur gutxirekin egitea ezarritako denboraren barruan. Horrelako gauzak edonon gerta daitezke edozein arrazoiengatik, beraz, prestatuta egon behar gara horrelako aldaketak egiteko eta irudimenaren bitartez, parte-hartzaileen motibazioa ez galtzeko.

4.2. Testuingurua

Ikaskuntza Zerbitzua ASPANAFOA entitatearen laguntzarekin eraman dut aurrera, Arabako haur minbizidunen gurasoen elkartearekin, hain zuzen ere.

Erakunde hau irabazi asmorik gabeko elkarte gisa sortu zen 1990. urtean, Txagorritxuko ospitalean guraso, haur eta leuzemia dutenen talde baten ekimenari esker. 1995. urtetik aurrera, elkarteak haur eta gazteen minbizi-kasuak baino ez ditu lantzen. 1997an, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarteekin bat egin zuen (Umeeekin). Ondoren, 2009an, Eusko Jaurlaritzak Aspanafoa onura publikokotzat jo zuen, eta 2014ean gizarte-interesezkotzat. Elkarte honen helburu nagusia minbizia duten haurren eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea da. Horrez gain, beste hainbat azpi helburu ditu: iritzi publikoa haurren minbiziaz sentsibilizatzea, haurren minbiziarekin zerikusia duten pertsona eta erakunde guztiei informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea, ikerketa zientifikoa sustatzea eta babestea, eta tokiko, probintziako, autonomia-erkidegoko eta estatuko erakunde guztiekin koordinatuta egotea (Aspanafoa, d.g.).

Entitate honen bulegoa, Pinto Vicente Abreu kalean aurki ditzakegu. Aspanafoa elkartean aparte, beste asko ere eraikin horretan kokatuta daude. Leku hori elkarteen federazioa deitzen da eta, esan dugun bezala, gaixoen autolaguntzarako bideratutako elkarteen multzo bat da, esate baterako, ASAMMA edota Arabako epilepsia elkarteak.

Nolanahi ere, erakunde honetan ez da garrantzitsua familien maila sozioekonomikoa, ezta non bizi diren ere; hemen, seme-alaben edo senideen gaixotasunak lotzen dituzte. Horiek guztiak modu berean tratatzen dira, nor diren kontuan hartu gabe, egiten saiatzen diren gauza bakarra beraiek bizi dituzten antzeko kasuetan oinarritzea eta esperientziak partekatzea da.

“Esta asociación nos ha servido para apoyarnos en familias que están pasando lo mismo que nosotros. De esta manera te sientes apoyado y ves que no eres el único que está viviendo esta pesadilla.” (Minbizia duen haur baten ama)

4.3. Parte-hartzaileak

Jolas kooperatiboen saio sekuentzia, Aspanafoa elkartearen haurrentzat prestatuta dago eta horietako zortzi haur gerturatu behar ziren tailerra praktikan jartzera. Zortzi haur horietatik lauk minbizia izan dute. Horietako hiruk oso txikiak zirenean jasan zuten gaixotasun hau, beraz, mentalki ez dituzten ondorioz jasan, ez direlako gogoratzen bizi izandako prozesuaz, baina fisikoki, orbainak zaindu behar dituzte, haurrak hazten direnean luzatu egin behar baitira haine gorputzarekin batera. Beraz, ezin dituzten mugimendu azkarrik egin. Aldiz, gaixotasun hori izan duen beste haurrak tratamendua amaitu berri du. Horren ondorioz, ezin du esfortzu fisiko askorik egin. Gainera, psikologikoki nahiko baxu ikusten zaio eta bera bakarrik baztertzen da.

Taldearen beste erdia ume horien anai-arrebak dira. Elkarte honen beharrak ikusterakoan, jolas kooperatiboen bitartez sortutako tailer bat egitea adostu genuenean, minbizia izan zuten haurren anai-arreben parte-hartzea eskatu zidaten, laguntza handia baitira haientzat. Gainera, lehen aipatu dudan bezala, tailer honen helburua haurrek taldean lan egiten ikastea eta sozializatzea da. Beraz, anai-arrebek jarduera horretan parte hartzea onuragarria izan zitekeela pentsatu genuen

Informazio guzti hau esku artean izanda, parte-hartzaile guztien ezaugarriekin taula bat sortu dut (2 taula) tailerraren proposamena zehazterakoan, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko. Grisez agertzen diren haurrak behar bereziak izan ditzaketenak dira, eta ariketak prestatzerakoan kontuan hartu behar ditugunak. Dinamikak prestatzerako orduan, inolako eragozpenik sortzen ez dietenak eta esfortzu fisikoaren maila oso altua eskatzen ez dietenak izan beharko dira. Horrela, parte-hartzaileetako bat ere ez da taldetik kanpo geratuko eta ez dute inongo arazorik izango dinamika aurrera eramateko.

	MINBIZI MOTA	GENEROA	ADINA	IKAS MAILA
A haurra	Tumore adrenokortikala (3 urte zituenean pairatu zuen). Kasu ez oso arrunta	Neska	10 urte	4. maila
B haurra	Biriketako blastoma (2 urte zituenean pairatu zuen). Kasu ez oso arrunta	Neska	11 urte	6. maila
C haurra	Leucemia. Duela 5 urte pairatu zuen. Kasu nahiko arrunta.	Mutila	11 urte	6. maila
D haurra	C haurraren arreba	Neska	7 urte	2. maila
E haurra	Garuneko tumorea. Tratamendua amaitu berri du.	Mutila	5 urte	5. urteko gela
F haurra	E haurraren arreba.	Neska	11 urte	5. maila
G haurra	E haurraren neba.	Mutila	9 urte	3. maila
H haurra	E haurraren arreba.	Neska	6 urte	1. maila

2 Taula. Parte-hartzaileen ezaugarriak (Iturria: neuk egina)

4.5. Esku hartzearen diseinua

Atal honetan, prestatutako esku-hartzearen proposamenaren azpi-atal garrantzitsuen ondik norakoak agertuko dira (I Eranskina). Hau da, iraupena, ekintzen domeinua, metodologia, erabiliko dela saio sekuentzia eta ebaluazio mota.

Aipatu den bezala, prestatutako jolas kooperatiboen esku-hartzea ordu eta erdiko saio batean eramango da aurrera. Horrez gain, garrantzitsua da aipatzea landuko diren ekintzen domeinuei dagokionez, elkarlaneko eta aurkakotasuneko ekintzak direla.

Saio honi hasiera eman baino lehen, erabiliko den metodologiaren ondik norakoak zehaztuko dira. Esku-hartzen honen izena esaten duen moduan, jolas kooperatiboen bitartez bideratuko da saio osoa, hurrengo helburu espezifikoak lortzeko, hain zuzen ere.

- ❖ Jokaera kooperatiboak nagusitzea eta parte-hartzaileak jolas mota honen garrantziaz jabetzea.
- ❖ Jarrera lehiakor negatiboak ekiditea eta harreman afektiboak estutzea.
- ❖ Konfiantzazko giroa sortzea eta talde lana sustatzea.
- ❖ Kideen guztien arteko laguntza sustatzea, enpatiaren bitartez eta haien arteko komunikazioa hobetzea.
- ❖ Ikaskideen arteko elkarbizitza hobetzea eta elkarrekintza diskriminatzailea besteenganako aurreiritziak ekiditen.
- ❖ Errespetua eta arduraren zentzua sustatzea.

Horretaz aparte, saio osoan zehar irakaslearen aginte zuzena agertuko da, gutxiago edo gehiago, baina irakaslea izango da saio horietan azalpenak emango dituena. Aurrekoaren haria jarraituz, irakasleak azalpena ematen duen heinean, bolondresen laguntzaz demostrazioak egingo ditu, azaldutako dinamika guztiz ondo ulertzeko.

Aipatzekoa da ere, jolasak aurrera eramateko nola egingo diren taldekatzeak. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako maila askotako parte-hartzaileak daudenez, taldekatzeak adinaren arabera egingo dira, hau da, bi taldeak konpentsatuta egongo dira adinaren arabera. Talde horien izenak kartulina batean idatziko ditugu, eta bertan, saioan zehar, bakoitzak lortzen dituen puntuak jarriko ditugu.

Hasierako planteamendua: dinamika bakoitzean talde guztiek puntuazio ezberdin bat lortuko dute. Dinamika lehenengo bukatzea lortzen dutenek 100 puntu lortuko dituzte; bigarren amaitzen duen taldeak 50 puntu lortuko ditu eta, azkenik, hirugarren taldeak 30 puntu irabaziko ditu. Azken dinamikarako, puntu guztiak batuko dira eta gehieneko puntuazioa duen taldeak abantaila batzuk izango ditu altxorra lortzeko.

Tailer hau Gorputz Hezkuntzako saioetan egiteko aproposa da, batez ere bide oso egokia da konpetentzia motorraren alderdi sozio-emozionala lantzeko eta garatzeko; batetik, jolas- eta bizipen-izaera duelako, eta bestetik, talde heterogeneo baten barruan sortzen diren giro, testuinguru eta ingurune askotariko eta aldakorretako etengabeko ikaskuntza-egoerak baliatzen dituelako.

Saioaren sekuentziaren garapenari dagokionez, ikusi dezakegunez, lehenengo bi

dinamikak parte-hartzaileek beren burua hobeto ezagutzera eta gorputzaren atalak berotzera bideratuta daude. Aldiz, gure gorputza aktibatuta izan ondoren, azken dinamika erlaxazioa lortzera zuzentzen da; horrela, parte-hartzaileak lasaiago egongo dira ebaluazioa egiteko. Horretaz aparte, aipatu beharra dago, tailerra aurrera eramateko bakoitzerako sekuentzia fitxa bat eramango dudala (II Eranskina). Bertan, saioan zehar egingo ditugun dinamikak laburtuta eta behar izango dugun materiala agertuko dira.

Ebaluazioari dagokionez, askotariko ebaluazioak jarriko ditugu martxan. Behin dinamika guztiak amaitu ditugula parte-hartzaile guztiak borobil batean eseriko dira eta esperientzia honetan izandako sentimenduak adieraziko dituzte ahoz. Gainera, ikasle bakoitzak bere esperientzia komentatzen duenean, ikaskide guztiek egoera horri buruz zer uste duten esateko aukera izango dute, beti errespetuz hitz egiten.

Ondoren, bakoitzak bere autoebaluazioa beteko du dianaren metodo ebaluatzailea erabiliz (III Eranskina). Ebaluazio fitxa hau bi zatitan banatuko da: lehenengo atalean, ikasle bakoitzak jarri beharko du bere burua nola ikusi duen saio osoan zehar dianaren zenbakien laukiak margotuz (1 zenbakiaren laukia hobetu behar badute eta 4 zenbakiaren laukia oso ondo egon badira) eta bigarren atalean, hiru idatzizko galderak izango dituzte erantzuteko eta beste baterako irakasleak saioa hobetzeko.

4.6. Informazioa jasotzeko tresnak

Elkarteari, familiei eta parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazio guztia biltzeko, zenbait bilera egin ditut Aspanafoako gizarte-langilearekin. Prozesu honetan zehar, bost bilera izan ditugu, hain zuzen ere.

Izandako bilera guzti hauek, elkarte honen beharrak ezagutzeko baliagarriak izan dira. Horretaz aparte, minbizia jasan izan duten haurren ezaugarriak jasotzeko eta ulertzeko erabili ditut, ondoren nire proposamenean haur guztiek parte-hartzeko aukera izan dezaten.

Bilerak informazioa biltzeko tresna gisa erabiltzeaz gain, oso lagungarria izan da egunerokoa idatzi izana (IV Eranskina). Nik idatzitako informazioa bada ere, une bakoitzean esperientzia hori nola bizi izan dudana gogoratzeko baliagarria izan da, eta horrela, hobetzeko modu bat bilatu ahal izango dut, prozesua kanpotik aztertu ondoren. Eguneroko horretan, bai zerbitzuarekin zerikusia izan duten bileretan gertatutakoa, bai zerbitzuan zehar burututako proposamenak eta horretan gertatutakoa azaltzen da. Horretaz aparte, prozesu osoan zehar izandako beldurrak eta sentimenduak ere agertzen dira.

Egunerokoa behin zehaztu dela, datuen analisisa egiteko erabili izan dut informazio guzti hori. Ikaskuntza-zerbitzu honen soluzioen eskema mentala egiteko eta ondoren ideia guzti horiek idatzi ahal izateko, beharrezkoa da prozesu honetan zehar lortutako datuen azterketa sakona egitea azalduko den hurrengo prozesuaren bitartez.

Hasteko, informazioa antolatu eta ordenatu da. Horretarako, prozesu osoan zehar lortutako informazio guztia artxibo batean sartu da eta paragrafo bakoitzari kode bat jarri zaio, ondoren antolatu ahal izateko. Behin informazioa kodifikatu dela, informazioa sailkatu da, hau da, laburtu, elkartu eta ordenatu. Prozesu hori aurrera eramateko, sistema kategorial bat jarri da praktikan. Sistema kategoriala, ideiak hierarkikoki sailkatzeari eta esaldi bakoitza kategoriatan bakar batean sartzeari deritzo. Kasu honetan, prozesuan lortutako narrazio etnografikoari buruzko sailkapen hierarkikoa ideia taula batera eraman da (3 Taula).

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPI KATEGORIAK	KOPURUA
Esperientziak eta anekdotak			5
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Diseinua	4
		Espazioa eta materiala	4
		Ikasleen ezaugarriak	1
	Proposamen didaktikoa	Zer planteatu dugun	5
		Balorazioak	3
		Egindako aldaketak	2
Faktoreak	Faktore erraztatzaileak		3
	Faktore oztopatzaileak		6
Harremanak	Ikasleen arteko harremanak		1
	Elkarteko gendearekin izandako harremanak		10
Sentipenak	Beldurrak eta kezakak		4
	Erronkak		1
	Sentipenak		4

3 Taula: Kategoria sistema. Informazioaren analisirako tresna


Testu guztiak kategoria eta azpikategoria batean sartu ostean, sailkatutako informazio guzti hori irakurri eta interpretatu da. Lortutako interpretazioarekin batera, testua segmentatuko da eta atal bakoitzari dagokion galdera jarriko zaio. Ondoren, galdera horien laguntzaz laburpena egin da beharrezkoak diren emaitzak azalertzeko. Sistema kategorial honek, paradigma kualitatiboan zentratutako eredu bat jarraitzen du. Hala ere, bukaeran datuak ere kuantitatiboki agertuko dira grafiko batean, dimentsio bakoitzaren portzentaiak azaleratuz.

5. Emaitzak

Jarraian, eskaintako zerbitzuan zehar ateratako emaitza deigarrienak aztertu eta azalduko dira. Honako hau aurrera eramateko, prozesu osoan zehar garatutako narrazio etnografikoa kontuan hartuko dut, (IV Eranskina). Bertan dagoen informazio guztia dimentsio ezberdinetan antolatu baita.

Emaitzetan, bost dimentsio agertzen dira zehaztuta, eta horien barnean beste azpiatal asko. Geroago ikusiko dugun dimentsio horiek kualitatiboki garatu ostean, kuantitatiboki ere azalduko dira. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kategorien emaitzak behin aterata, ondorengo grafikoan (1 Grafikoa) gehien garatu den dimentsioa planifikazioa izan dela argi dago, %35,8ko ehunekoarekin. Ondoren, elkarrekin eta ikasleen arteko harremanak oso deigarriak ere izan dira %20,8arekin. Aipatzekoa da gainera, faktoreak eta sentipenak %17ko ehunekoa izan dutela bakokitzak. Eta azkenik, gutxien garatu den dimentsioa esperientziak eta anekdotak izan dira %9,4 ehunekoarekin.

1. Grafikoa: Dimentsioen grafikoa



5.1. Esperientziak eta anekdotak

Ikaskuntza zerbitzua gauzatzeko prozesuan zehar hainbat esperientzia bizi izan ditut. Hasteko, esan beharra daukat oso prozesu zaila izan dela entitate edo eskola bat aurkitzea nire lana aurrera eramateko. Baina, denbora asko bilatzen egon ostean, bi entitaterekin nire lana aurrera eramateko aukera agertu zitzaidan.

“ASPACE elkartearekin izandako bileratik irtetea, proposamen horri baietz edo ezetz esan aurretik hobe dela ASPANAFOA elkartearekin bilera izan arte itxarotea proposatu ditut tutoreak. Bi proposamenak esku artean ditudanean, gehien interesatzen zaidana aukeratu ahal izango dut.”(Egunerokoa, 5.eguna, 08/02/2022)

Horretaz aparte, tailerra aurrera eraman genuen, gurasoen gaixotasun honen prozesuan zehar izandako haibat anekdota kontatu zizkidaten. Oso aberasgarria izan da ikustea haien artean nola laguntzen eta babesten diren. Gainera, plazaratu didate horrelako jarduerak prestatzea oso onuragarriak direla bai haientzat bai haine seme-alabentzat.

“Gurasoekin ere hitz egin ahal izan dut, eta tailer honen helburuak azaldu dizkiet. Horretaz aparte, esan didate elkarteari esker oso lagunduak sentitu direla eta beste pertsona batzuekin enpatizatu ahal izan dutela, haien alabak minbizi kasu berezi samarra izan baitzuen. Amak ere baieztatu dit honako jardueren ondorioz haurrak eta gurasoak gehiago elkartzen direla eta prozesu osoa nola bizitzen ari diren hitz egin dezaketela.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

5.2. Harremanak

Esperientzia honetan zehar bi harreman mota aztertu dira. Alde batetik, nik elkartearekin izan dudana harremanak eta bestetik, haurrak haien artean izan dituzten harremanak tailerra aurrera eramaterakoan. Esan beharra dago, gizarte langilearekin kontaktuan egon naizela prozesu osoan zehar eta berarekin adostu dudala egin dugun guztia.

“ASPANAFOAko gizarte-langilearekin izandako bilera osoan oso babestuta sentitu naiz. Haien beharrak ikusita, jolas kooperatiboekin tailer bat sortzea adostu dugu. Horrez gain, nire proposamena idazki batean islatzea eskatu dit elkarteari lehendakariari bidaltzeko. Esan dit bere ustez, proposamen idatzia izanda, hurrengo egunerako erantzuna izango genuela.” (Egunerokoa, 6.eguna, 09/02/2022)

“Gizarte-langileak minbizia izan duten parte-hartzaile guztien diagnostikoak eta tratamenduak, gaixotasuna noiz jasan zuten eta ariketa fisikoa egiteko orduan izan ditzaketen zailtasunak azaldu dizkit.” (Egunerokoa, 11.eguna, 10/03/2022)

“Tailerra egin baino ordu erdi bat lehenago geratu naiz gizarte-langilearekin, dinamikak prestatzen joateko.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

Esan bezala, gizarte langilearekin harremanetan egoteaz aparte, azkenengo egunean, hau da, tailerra aurrera eramateko lehendakariarekin hitz egiteko aukera izan nuen. Ez dut kontaktu handirik berarekin izan prozesuan zehar, baina egindakoagatik eskerrak eman zizkidan.

“Esan dit ekimen bikaina iruditzen zaiola, eta eskerrak eman dizkit beraiekin gauzatzeagatik. Horretaz aparte, saioan zehar ateratzen ditudan argazki guztiak bidaltzeko eskatu dit, ondoren haiek beren sare sozialetan argitaratzeko aukera izan dezaten, baita nik idatzitako testu txiki bat ere, zer egin dugun azaltzeko.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

Elkartearen jendearekin nik izandako harremanetaz gain, garrantzitsua da ere ikustea zer nolako harremanak izan dituzten parte-hartzaileak jarduerak aurrera eramaten zuten bitartean. Jolas kooperatiboak talde lana hobetzeko prestatuta daude, beraz, hori izan da tailer honen helburu nagusia.

“Saio osoa bukatutzat eman dugunean, ohartu nahiz helburu guztiak lortu ditugula nahiz eta prozesu eta dinamika guztia aldatu. Bi parte-hartzaileek talde lanean haritzea lortu dut. Haien harremanei dagokienez, oso ondo moldatu dira eta erronkak betetzeko haien artean hitz egin dute errespetuz saio osoan zehar.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

5.3. Nola sortu da planifikazioa?

Tailer honen planifikazioa zehazteko, garrantzitsua ere izan da parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarri deigarriak esku artean izatea. Horretaz aparte, bakoitzaren diagnostikoa eta tratamendua helarazi zizkidan elkarteak, parte hartu behar zuten haur guztien beharretara egokitutako dinamiken plangintza sortzeko, baztertua senti ez zitezen.

“Zortzi izango dira tailerrera joango diren parte-hartzaileak, eta horietatik lauk minbizia izan dute bizitzako uneren batean. Gainerakoak, hauen anai-arrebak dira.

Horietako hiruk oso txikiak zirenean jasan zuten gaixotasun hau. Honako hauek dira diagnostikoak: Tumore adrenokortikala, Biriketako blastoma eta Leucemia. Aldiz, gaixotasun hori izan duen beste haurrak tratamendua amaitu berri du. Honen diagnostikoa garuneko tumorea da.” (Egunerokoa, 11.eguna, 10/03/2022)

Ikasle bakoitzaren ezaugarriak behin esku artean nituela, aspektu metodologikoak zeintzuk izan dire prozesu honetan zehaztuko dira. Planifikazioaren diseinua motibagarria, originala eta dibertigarria egiteko, piratei buruzko dinamika bat sortu nuen saio osoa aurrera eramateko.

“Pirata giroan sartzea erabaki dut saioa aurrera eramateko. Parte-hartzaileek taldeak osatu beharko dituzte, eta beren ‘tripulazioari’ izen bat jarri beharko diote. Saio osoan zehar piratak balira bezala jokatuko dute eta jolas bakoitzean geratzen diren posizioaren arabera puntuak pilatzen joan beharko dute. Tailerrari ziurgabetasun eta motibazio handiagoa ematen jarraitzeko, azken jolasean taldeka altxor ezkutu bat bilatu beharko dute. Pentsatu dut altxor on bat gozoki poltsa bat izan zitekeela bakoitzarentzat, altxor itxurako kutxa batean sartuta. Guztiek esperientzia honetaz berdin goza dezaten, uste dut komenigarria dela guztiek poltsatxo bat izatea altxorraren barruan, nahiz eta bere taldea ez izan aurkitu duena.” (Egunerokoa, 12.eguna, 12/03/2022)

Aspektu metodologikoen atal honetan, egindako diseinuaz aparte, garrantzitsua da materialarekin hartutako erabakiak aipatzea. Elkarte bat denez, eta ez ikastetxe bat, ez dugu izan eskura behar zen material guztia saioa egiteko, nahiz eta jolas sinpleak prestatu eta materia gutxi eskatu. Beraz, elkarte honetatik kanpo eskuratu behar izan nuen.

“Urduri samar nago, ez baitakit behar dudan material guztia izango dudan prestatu ditudan jolasetarako. Gizarte-langileak esan didanez, beraiek ez dute materialik nik prestatu ditudan jolasak egiteko.” (Egunerokoa, 13.eguna, 17/03/2022)

“Gradu-amaierako lanaren tutorearekin egin dut hitzordua bideo-dei baten bidez, material faltaren egoeraz hitz egiteko. Materiala astebururako behar dudanez, ostiralean jaso dezaket unibertsitateko gimnasiotik eta astelehenean itzuli.” (Egunerokoa, 14.eguna, 19/03/2022)

Behin jolas kooperatiboen saioa aurrera eramán dugula, bertan egindako balorazioan lortutako emaitzak aipatzea komenigarria da. Hasteko, ahozko koebaluazio bat egin dugu, saio osoan nola sentitu diren azaltzeko. Horretaz aparte, gustatu zaien ala ez ere galdetu diet.

“Bi parte-hartzaileek esan didate oso ondo pasatu dutela eta espero zutena baino askoz originalagoa izan dela. Baina aldi berean oso laburra egin zaiela, hurrengorako gustatuko zitzaiela jolasteko denbora gehiago izatea. Gainera, eskerrak eman dizkirate gozokien poltsatxoengatik eta dena beraientzat prestatzeagatik.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

Koebaluazioaz aparte, autoebaluaziorako diana bat duen fitxa txiki bat banatu diet bakoitzari. Diana horretan, bakoitzak dianaren zati bat margotu beharko du, jarritako helburua bete duten ala ez adieraziz (V Eranskina).

“Biek planteatutako helburu guztiak bete dituzte, beraz, biek egindako autoebaluazioan kalifikazio onak ikus ditzakegu. Dianaz gain, hiru galdera izango dituzte erantzuteko (gehien gustatu zaiena, gutxien gustatu zaiena eta aldatuko luketena). Erantzunak bat datoz koebaluazioan ahoz esandakoarekin.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

5.4. Zein faktore egon dira planifikazioa prestatzeko eta aurkezteko orduan?

Ikaskuntza zerbitzu hau gauzatzeko prozesu osoan zehar hainbat faktore izan ditugu, baita tailerra aurrera eramaterakoan ere. Alde batetik faktore erraztatzaileak egon dira eta bestetik, faktore oztopatzaileak. Esan beharra dago, faktore oztopatzaile gehiago egin direla erraztatzaileak baino. Faktore oztopatzaileak egon direnean irtenbide bat bilatzen saiatu naiz, ahalik eta moduren onenean.

Faktore erraztatzaileen ardatzean, nire gradu amaierako lanaren tutorea dagoela esan beharra dago. Prozesu osoan zehar laguntzeko prest egin baita eta entitateekin harremanetan gartzeko oso lagungarria izan da.

“ASPACE entitatetik boluntario bila dabilizatela jakinarazi diotela esan dit tutoreak. Mezua ikusi bezain laster, tutoretza bat eskatu dut eta erakunde bat aurkitzeko sortzen ari zaizkidan arazo guztiak kontatu dizkiot. Nire arazoa helarazi diodanean, berak

garun paralisiaren elkartearekin hitz egin duela helarazi dit.” (Egunerokoa, 3.eguna, 20/01/2022)

“ASPANAFOA elkartearekin hitzordua jarri dut eta tutoreak, ASPACE erakundearekin hitzordua egin duela esan dit eta bilerara nirekin joatea proposatu dit. Beraz, hainbeste esfortzu egin ondoren, bi erakunde ditut aukeratzeko nire ikaskuntza-zerbitzua praktikan jartzeko.” (Egunerokoa, 4.eguna, 04/02/2022)

Faktore oztopatzaileei dagokienez, momentu ezberdinetan sortu direla aipatu beharra dago. Hasieran, entitateekin hitz egiteko hainbat arazo izan nituen, ondorioz, nire lana osoa atzeratu egin da (bai alde praktikoa, ezin nuelako aurrera eraman, baita teorikoa ere, programazioa ezin nuelako diseinatu talderik gabe).

“Hilabete osoa daramat ‘Goian’ proiektuarekin harremanetan jartzen saiatzen, eta ez dut inorekin hitz egiterik lortu. Nire interesak beste elkarte batzuetara gehiago egokitu daitezkeenez eta elkarte honekin hitzordua jartzeko zailtasunak ditudanez, gaixotasunei buruzko elkarteekin harremanetan jartzea erabaki dut. Beraz, ASPACE elkarteari idatzi diot.” (Egunerokoa, 2.eguna, 07/01/2022)

“Pixka bat nahigabetuta sentitzen naiz, ASPACE elkartera bidali nuen mezuaz gain, telefono-dei pare bat egin ditudalako eta ez dudalako erantzunik jaso.” (Egunerokoa, 3.eguna, 20/01/2022)

Ondoren, tailerraren iraupenari dagokionez, nik bi saioretako proposamena egin nuen antolaketa sakonagoa egiteko, baina elkarte familiarrekin antolatu behar zenez, beraiek ordu eta erdiko saio bakar bat egitea proposau zuten.

“Tailerrarentzako data bat jartzeko, bi saioko tailer bat proposatu nuen, baina zuzendaritza-batzordetik esan didatenez, oso zaila izango litzateke bi egunetan familiarrekin bat egitea. Beraz, egun bakar bat koadratzea erabaki dugu.” (Egunerokoa, 9.eguna, 23/02/2022)

Amaitzeko, tailerra aurrera eraman genuen egunean, zortzi haurretatik bakarrik bi gerturatu ziren eta bi parte-hartzailerekin ezinezkoa baitzen jolasak nik prestatutako metodologiarekin aurrera eramatea, taldeetan egin behar zirelako. Beraz, azkeneko momentuan dinamika osoa aldatu behar izan nuen. Gainera, tailerra egiten ari ginela,

konturatu nintzen denbora asko soberan geratuko zitzaigula. Izan ere, prestatutako jolasek askoz denbora gehiago behar zuten lauko taldeentzat bikote batentzat baino.

“Konturatu naiz hamabost minutu igaro direla geratu garenetik, eta oraindik ez dira haur gehiagorik agertu. Pentsatutako jolas guztiak erronka gisa erabil genitzakeela ondorioztatu dut, hau da, altxorra aurkitzeko taldekako puntuak pilatu beharrean, bi partaideek erronka kooperatiboak gainditu beharko lituzketela altxorra lortzeko. Agertutako bi umeei ideia ona iruditu zaie eta hauek motibatzea lortu dut, naiz eta eragozpenak izan.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

“Bi parte-hartzaileak erronkak egiten zituzten bitartean, beste erronka batzuk gehitu ditut talde lana inplikatzeko zuten jolasak pentsatuz, altxorra bilatu eta lasaitasunera itzuli aurretik, hau da, azken bi dinamika gauzatu baino lehen.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

5.5. Zer nolako sentipenak eta kezkek izan ditut?

Azkenengo dimentsio honetan, prozesu osoan nik izandako sentipen onak eta kezkek azaleratuko dira. Esan beharra dago bien arteko portzentai kuantitatiboari dagokionez, berdina dela. Hasteko, garrantzitsua da jakitea nik aukeratu dudako entitatea nire sentipenengatik eta bizi izandakoagatik izan dela.

“Bi bilerak izan ondoren, dena nahiko argi daukadala uste dut. Nire ikaskuntza-zerbitzua ASPANAFOA elkartearekin egitea erabaki dut, hainbat arrazoiengatik. Hasteko, super eroso sentitu naiz bileran. Hori gutxi balitz, etorkizunean ospitale batean tutore gisa lan egitea gustatuko litzaidake ospitaleratuta dauden hurrekin lan egiteko, eta horietako gehienak haurren onkologiako pazienteak izan ohi dira. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, eskolan eman ditudan urte guztietan ikusi ditut down sindromedun ikaskideak, zailtasun psikologikoak zituztenak, eta minbizia izan zuen lagun bat ere izan nuen. Gorputz Hezkuntzako saioetan, gehienetan bankuan eserita geratu behar izaten zen, irakasleak proposatutako dinamika ezin zituelako egin.” (Egunerokoa, 6.eguna, 09/02/2022)

Horretaz aparte, desmotibazio asko eta estututa sentitu naiz momentu askotan prozesu honetan zehar. Alde batetik, uste nuelako lanaren epeak betetzea ezinezkoa izango zelako,

oso berandu hasi nintzelako entitatearekin hitz egiten; eta bestetik, etorri behar ziren umeetatik erdia baino gutxiago agertu zirelako tailerlean.

“Oso hunkituta nago lan guztia forma hartzen hasi delako. Hala ere, apur bat estututa nago lan honetan ezarritako epeak betetzeko. Gradu Amaierako Lan honen hasieran arreta handiagoa jarri beharko nukeela uste dut, eta data batzuk jarri beharko nituzkeela entitate honekin egin dudana baino askoz lehenago. Horrela, denbora gehiago izango nuke lan teorikoa egiteko atal praktikoa egin ondoren.” (Egunerokoa, 10.eguna, 02/03/2022)

“Etsipen handia izan da niretzat eta gauzak azkar eta korrika egin ditudala sentitu dudalako azken unean. Baina gero konturatu naiz gauza hauek edonori gerta dakizkiokeela eta gure irudimen guztia erabiliz konponbide azkar bat bilatzen ikasi behar dugula.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

Aurrekoarekin batera, entitate batekin harremanetan jartzea oso prozesu zaila eta luzea izan dela esan beharra dago. Baina, era berean, Aspanafoarekin hitz egitea lortu nuenean eta nire tailerra forma hartzen zihoazela, oso sentazio atsegina izan zen.

“Nire proposamena praktikan jartzeko elkarte bat aurkitzea prozesu zaila eta luzea izaten ari den arren, motibatuta sentitzen naiz eta nire ideia guztiak bat datozen leku bat aurkitzeko gogoz. Uste dut mundu guztiak duela Gorputz Hezkuntzako saioetan parte hartzeko eta harremanak izateko eskubidea, eta saio guztiak taldearen ezaugarrietara egokituta egon daitezkeela, inor kanpoan utzi gabe.” (Egunerokoa, 6.eguna, 09/02/2022)

“Pozgarria izan da jakitea badudala entitate bat lan egiteko eta proposamen bat praktikan jartzeko. Oso prozesu luzea eta nahasia izan da, baina azkenean, erabakirik onena hartu dudala uste dut.” (Egunerokoa, 8.eguna, 11/02/2022)

“Lan handia behar izan duen esperientzia izan bada ere, berriro errepikatuko nuke, zalantzarik gabe. Pozgarria da ikustea zure lanak zerbaiterako balio duela eta jendea pozten duela.” (Egunerokoa, 15.eguna, 03/04/2022)

6. Ondorioak

Azkeneko atal honetan, Gradu Amaierako Lan osoan ateratako ondorioak azalduko dira. Horretarako, lehenik eta behin, proiektu honetatik ateratako emaitzak marko teorikoarekin alderatuko dira. Ondoren, hasieran ezarritako helburuak lortu diren ala ez azalduko dira. Jarraituz, lan honetarako hobekuntza proposamenak zehaztuko dira eta amaitzeko, nire ondorio pertsonalak azaleratuko ditut.

Ikaskuntza zerbitzuaren prozesuan, Chiva-Bartoll et al. (2018a)-ek esaten duten moduan, ikasleen parte hartze aktiboa eskatzen du. Gainera, proiektu hau enpatia garatzeko eta komunikazio tresnak lantzeko oso aproposa da. Hau esanda, ondoriozta dezakegu gaitasun hauek garatu direla prozesu osoan zehar, baita autonomia gehiago izatea ere. Beste lan askotan tutoreak ematen dizkigute informazio guztia guk lana egiteko, baina ikaskuntza zerbitzuaren bitartez, gu geuk gara unibertsitatetik kanpoko jendearekin harremanetan jartzen garenok eta honek aipatutako gaitasun horiek garatzeko lagungarria da. Horretaz aparte, aipatu beharra daukat nire parte hartzea oso aktiboa izan dela prozesu osoan zehar. Saiatu naiz entitate askorekin hitz egiten eta azkenean nire ideiarekin gehien bat zetozen elkarteak aukeratu nuen, hainbat autoreek esaten duten moduan (Aramburuzabala, 2013; Chiva-Bartoll et al., 2018b).

Beste alde batetik, Capellak (2014) esaten duen moduan taldean lan egiteko gaitasuna ere ikasten da ikaskuntza-zerbitzuaren bitartez, baita koordinazio eta lankidetzaren trebetasunak garatzea ere. Kasu honetan, ez da honako gaitasun hau landu, lan osoa autonomoki egin baitut eta nik izandako bilerak soilik izan dira Aspanafoako gizarte langilearekin. Beraz, ez dut lankidetzaren trebetasunak garatzeko aukera izan.

Marko teorikoan aipatzen diren ikaskuntza zerbitzuaren bitartez lortu izan ditugun gaitasunetatik aparte, komenigarria da aztertzea esku hartzearen helburuak bete diren ala ez. Esku-hartzean azpimarratutako helburu espezifikoek dagokionez, nahiz eta eragozpenak izan gehienak bete izan dira. Alde batetik, jolas kooperatiboaren bitartez, harreman afektiboak estutzea lortu dugu parte-hartzaileek erronkak aurrera eramateko, talde lana sustatu baitute eta haien artean konfiantzazko giroa sortu dute. Hori gutxi balitz, dinamika guztietan zehar haien arteko errespetua eta arduraren zentzua ikusi da. Baina, beste aldetik, ezin izan dira jarrera lehiakor negatiboak ekidin, ezin izan ditugulako aurkakotasuneko ekintzak aurrera eramanez. Hasiera batean, taldeak sortu behar izan ziren helburu hau lortzeko, baina, bi

parte-hartzaile baino agertu zirenez, helburu hau bertan behera utzi behar izan da. Hala eta guztiz ere, esan den bezala, beste helburu espezifiko guztiak betetzea lortu da tailer honen bitartez.

Helburu orokorreari dagokienez, proiektu honen bitartez, ezaugarri fisiko desberdinak dituzten haur guztientzat egokia den jarduera fisikoaren proposamena ezagutarazi da. Oso onuragarria izan da inklusibotasuna bilatzeko eta haurrik baztertuta ez sentitzeko.

Aurrekoari harira jarraituz, emaitzetan ikusi dugun bezala, hainbat gauza ikasi izan ditut eta bertan islatu dira bizi izandako esperientzia ezberdinak. Emaitza guztiak aztertu ostean, esan beharra daukat ikasleen arteko harremanei buruz informazio gehiago izatea eta haien artean nolako jarrerak dituzten aztertzea. Kasu honetan, saia izan da honako hau lortzea, parte-hartzaile faltagatik eta aurkakotasuneko dinamiken faltagatik.

Horretaz gain, nire sentipenak eta planifikazioa egiterako momentuan agertu diren faktore oztopatzaileak aztertu ostean, ondorioztatu dut hurrengo lanerako, komenigarria izango litzatekeela askoz lehenago elkarrekin harremanetan jartzea. Batez ere gero hutsak egin ahal izateko eta horiek konpontzeko denbora izateko, denbora gainera etortzen zaidala sentitu gabe.

Planifikazioarekin jarraituz, Tailerretik kanpoko ikuspegi batetik aztertu ondoren, gustura egingo litzaidake tailerra parke edo mendi batean gauzatzea, haurrak naturarekin harremanetan egon zitezten. Gainera, dinamikak aurrera eramateko material naturalak ere sar nitzkeen. Eta irakats nezakeen, ongi pasatzeko, ez dugula beste ezer behar, gure inguru naturalean daukagunari erreparatzea eta aprobetxatzea baino.

Aurrekoarekin batera, balorazioaren emaitzak ikusi ondoren, gehiago sakonduko nuke saioaren amaieran egindako koebaluazioaren hausnarketan. Gai honi buruzko informazio gehiago atera nezakeen, parte-hartzaile gehiago egon balira, eta beste galdera batzuk egingo banituzke, esate baterako, nola sentitzen dira haiek, heziketa fisikoko eskoletan proposatutako ariketak egin ezinik eserita geratzen direnean.

Aitzitik, faktore onuragarrien eta sentipenen emaitzak ikusi eta gero, esan dezaket oso proiektu atsegina eta onuragarria izan dela nire formakuntza profesionalerako. Esan bezala, oso prozesu luzea izan da baina asko ikasi dudala eta berriz errepikatuko nukeela. Formakuntza profesionalaz aparte, pertsonalki gauza asko eramaten ditut. Konturatu naiz uste dugun baino jende gehiagok laguntza behar duela edo esfortzu pixka batekin ekarpen txiki

bat egiten dugula haien bizitzan. Gainera, oso pozgarria da apur bat makalduta dauden haurrak zure lanari esker denbora dibertigarria pasa egin dezaketela ikustea.

Beraz, guzti hau esanda eta lanean agertutako informazio guztia bilduz, pozik nago ikasketa zerbitzuaren proiektu hau aukeratu izan dudalako nire gradu amaierako lana aurrera eramateko. Horrela, lan teoriko bat egiteaz gain, nire aletxo eman diot elkarte bati modu praktikoan eta eraginkorrean.

7. Erreferentziak

- 236/15 dekretua (2016). Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. (2016ko abenduaren 15a). *Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duena. BOPV núm. 9.* [OH curriculumsa.pdf \(euskadi.eus\)](#)
- Albujar, A. (2020). *Influencia de la actividad física en el estado de salud de pacientes pediátricos con leucemia*. [Tesis de pregrado]. Universidad privada Norbert Wiener (Perú), Facultad de ciencias de la salud. <http://repositorio.uwiener.edu.pe/handle/123456789/4214>
- Alvarez-Pitti, J., Casajús, J.A., Leis, R., Lucía, A., Lopez de Lara, D., Moreno L. A. eta Rodriguez, G. (2020). Exercise as medicine in chronic diseases during childhood and adolescence. *Anales de Pediatría*. 92 (3) 173.e1-173.e8. <https://doi.org/10.1016/j.anpedi.2020.01.010>
- Aranburzabala, P. (2013). Aprendizaje-servicio y justicia social. *Revista internacional de educación para la justicia social*, 2, 5-10. <https://revistas.uam.es/riejs/issue/view/88/53>
- Aspanafoa (d.g.). Asociación de padres y padres de niños con cáncer de Álava. <https://www.aspanafoa.org>
- Barra, E. (2014). Apoyo social, estrés y salud. *Psicología y Salud*. 14 (2) 237-243. <https://doi.org/10.25009/pys.v14i2.848>
- Cabrera, J.C. (2019). *Diseño cooperativo y motivacional con pacientes oncológicos infantiles*. [Tesis de pregrado]. Universidad del Azuay (Ecuador), Facultad de Diseño, Arquitectura y Arte. <https://dspace.uazuay.edu.ec/handle/datos/9184>
- Capella, C., Gil, J., eta Martí, M. (2014). La metodología del aprendizaje-servicio en la educación física. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 116, 33-43. <https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es>
- Cerdas, E. (2013). Experiencias y aprendizajes con juegos cooperativos. *Revista paz y conflictos*, 6, 107-123. <https://doi.org/10.30827/revpaz.v6i0.812>

- Chiva-Bartoll, Ò.; Capella Peris, C. eta Pallarès Piquer, M. (2018a). Investigación- acción sobre un programa de aprendizaje-servicio en la didáctica de la educación física. *Revista de Investigación Educativa*, 36 (1), 277-293. <https://revistas.um.es/rie/article/view/270581/221681>
- Chiva-Bartoll, O., Pallarés-Piquer, M. eta Gil-Gómez, J. (2018b). Aprendizaje-servicio y mejora de la personalidad eficaz en futuros docentes de Educación Física. *Revista Complutense de Educación*, 29 (1), 181-197. <https://doi.org/10.5209/RCED.52164>
- Davies, W. H., Noll, R. B., De Stefano, L, Bukowski, W. M., eta Kulkarni, R. (1991). Differences in the childrearing practices of parents of children with cancer and controls: The perspectives of parents and professionals. *Journal of Pediatric Psychology*, 16 (3), 295-30. <https://doi.org/10.1093/jpepsy/16.3.295>
- Devis, J. eta Peiró, C. (1993). La Actividad Física y la promoción de la salud en niños/as y jóvenes: La escuela y la Educación Física. *Revista de psicología del deporte*, 4, 71-89.
- García Bernal, M. eta Badell Serra, I. (2012). Leucemia en la infancia, signos de alerta. *An Pediatr Contin*. 10 (1), 1-7. https://www.academia.edu/21389088/Leucemia_en_la_infancia_signos_de_alerta?auto=citations&from=cover_page
- Fernández-Río, J. eta Méndez-Giménez, A. (2016). El aprendizaje cooperativo: modelo pedagógico para educación física. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*. (29) 201-206. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5400872>
- Gonzalez, E. (2011). Beneficios de la Educación Física y el deporte en los escolares. *Innovación y experiencias educativas*. 39, 2-8.
- Migotto, W.H., León, M., León, L., Vigil, C., Velarde, R., Iberico, W. eta Abugattas, J.E. (2000). Sarcomas de tejido blandos en el Instituto de Enfermedades Neoplásicas. *Acta Cancerol*. 30(2): 37-43.
- Navarro-Patón, R.; Basanta-Camiño, S.; Abelairas-Gómez, C. (2017). Los juegos cooperativos: incidencia en la motivación, necesidades psicológicas básicas y disfrute

- en Educación Primaria. *Sportis Sci J*, 3 (3), 589-604.
<https://doi.org/10.17979/sportis.2017.3.3.2088>
- Powell, J. (2018 ko iraila). *Cáncer en la infancia*. Nemours Children 's Health.
<https://kidshealth.org/es/parents/cancer.html>
- Pozo, C., Bretones, B., Martoz, M. J., Alonso, E. eta Cid, N. (2015). Repercusiones psicosociales del cáncer infantil: apoyo social y salud en familias afectadas. *Revista Latinoamericana de psicología*. 47 (2), 93-101.
<https://doi.org/10.1016/j.rlp.2014.07.002>
- Rivera-Garcia, E., Rivas-Valenzuela J. eta Trigueros-Cervantes, C. (2021). Construyendo teorías implícitas desde el Aprendizaje-Servicio en Comunidades de Aprendizaje. *Estudios Pedagógicos*, 47(4), 167-191.
<https://doi.org/10.4067/S0718-07052021000400167>
- Ruiz-Montero, P. eta Bru-Serrano, M. (2021). La Educación Física y el deporte como servicio para los más vulnerables. Beneficios del Aprendizaje de Servicio. *Universidad de Granada*.<https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/69449/LIBRO%20CATÁLOGO%20FINAL.pdf?sequence=2&isAllowed=y>
- Sánchez de Toledo Codina, J. eta Sábado Álvarez, C. (2012). Servicio de Oncología y Hematología Pediátricas: Linfomas de Hodgkin y no Hodgkin. *Pediatría Integral*. XVI (6): 463-474.
<https://cdn.pediatriaintegral.es/wp-content/uploads/2012/10/Pediatría-Integral-XVI-6.pdf#page=49>
- Torpoco, E.I. (2017). *Juegos cooperativos para promover actitud de solidaridad en Educación Inicial*. [Doctorego tesia]. Universidad de Huancavelica, Perú.
<https://repositorio.unh.edu.pe/bitstream/handle/UNH/1827/TRABAJO%20DE%20INVESTIGACION%2C%20ELBA%20INES%20TORPOCO%20CASTILLO.pdf?sequence=5&isAllowed=y>
- Vilato, L., Nuñez, Y., Perez, I., Videaux, J.M., Lescaille L. (2018). Salud de familias con niños y adolescentes con cáncer. *Revista información científica*, 97 (3), 606-615.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6501472>

8. Eranskinak

I Eranskina: Esku hartzearen programazioa

MUGIMENDUAREN TAILERRA					
IZENBURUA		JOLAS KOOPERATIBOAK			
ENTITATEA: ASPANAFOA			SAIO KOPURUA: 1		
LANTZEN DIREN EKINTZEN DOMINIOAK (laranjaz)					
1	2	3	4	5	6
Bakarkako ekintzak	Bat baten aurkako ekintzak	Elkarlaneko ekintzak	Elkarlaneko aurkakotasuneko ekintzak	Ziurgabetasun inguruneko ekintzak	Adierazpen eta arte ekintzak

HELBURUAK ETA EBALUAZIOA	
Helburu didaktikoak	Ebaluazio irizpideak (heziberri)
Jarduera fisikoetan parte hartzea eta besteekin talde-harremanak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Norberaren eta besteren mugak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu. - Egoki okupatzen ditu espazioak, bai lankidetzarako, bai aurkaritzarako. - Harreman integratzaileak ditu beste partehartzaileekin.
Jarduera fisikoaren balioestea eta besteak errespetatzen jakitea arauak errespetatuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Jolaskideak errespetatzen ditu, ez ditu diskriminatzen. - Joko-arauak ezagutzen eta betetzen ditu, eta garaipenak eta porrotak onartzen ditu.

EDUKIAK (HEZIBERRI 2020)
<p>(1. eta 5. multzoak)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea). - Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. - Jolasetan parte hartzea eta kirolak egiten hastea. - Jolasaren oinarriko estrategiak deskubritzea; hau da, lankidetzeta, aurkaritza eta lankidetzeta/aurkaritza. - Jolas-arauak ulertzea, betetzea eta jarrera arduratsua izatea ezarritako estrategiekin. - Jolasa balioestea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisiako denbora eta esfortzua jolasetan eta kirolean erabiltzeko modua ematen duen aldetik.

IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

Saio honetan egingo ditugun jolas kooperatiboekin haurren talde-lana hobetzeko, lehenengo dinamikan sortutako taldeak egingo diren dinamika guztietan mantenduko ditugu. Horretaz gain, lehen dinamika bukatu ostean, talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du. Talde horien izenak kartulina batean idatziko ditugu, eta bertan, saioan zehar, talde bakoitzak lortzen dituen puntuak jarriko ditugu.


Dinamika bakoitzean talde guztiek puntuazio ezberdin bat lortuko dute. Dinamika lehenengo bukatzea lortzen dutenek 100 puntu lortuko dituzte; bigarren amaitzen duen taldeak 50 puntu lortuko ditu eta, azkenik, hirugarren taldeak 30 puntu irabaziko ditu.


Azken dinamikarako, puntu guztiak batuko dira eta gehieneko puntuazioa duen taldeak abantaila batzuk izango ditu altxorra lortzeko. Gainera, haurrak motibatzekeo pirata gisa jokatzeko saiatuko gara, piraten tripulazio lehiaketa bat iradokiz.

SAIOAREN SEKUENTZIA

1. Dinamika	Mugitzen diren uztaiak
2. Dinamika	Ibaia zeharkatu
3. Dinamika	Puxika euritea
4. Dinamika	Uztaia atera
5. Dinamika	Guztiak batera altxatu
6. Dinamika	Puxiken trena
7. Dinamika	Pilotak elkar
8. Dinamika	Iluntasuna
9. Dinamika	Masajeak eta ebaluazioa


1. Dinamika: Mugitzen diren uztaiak (Aktibazioa)			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Talde handian	3 uztai	10 minutu
HELBURUAK	Ezagutzea eta taldeak egitea		
AZALPENA			
<p>Parte-hartzaileak zirkulu batean jarriko dira, eskuak emanda. Bi parte-hartzailearen artean uztaia jarriko dugu. Helburua uztaiak parte-hartzaile guztien artean pasatzea izango da, haiek eskuak askatu gabe. Uztaia zeharkatzen dugun bitartean elkar ezagutzeko, gure izena esan beharko dugu, baita gure aisialdian gehien gustatzen zaigun egitea ere. Amaitzerakoan, parte-hartzaileak taldeak egingo dituzte eta taldearentzat izen bat bilatu beharko dute. Ondoren, izen guztiak kartulina batean jarriko dira non dinamika ezberdinen puntuazioak gehituko dira.</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
- Parte-hartzaileak ezin izango dituzte eskuak askatu		-	

2. Dinamika: Ibaia zeharkatu			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Blokeak	10 minutu
HELBURUAK	Erronka lortzeko estrategiak sortzea eta taldean lan egitea.		
AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Talde bakoitza ibaiaren ertz batean jarriko da (aretoaren ertz batean), kontrako taldearengandik bereizita. Talde bakoitzaren helburua ibaia ahalik eta denbora gutxienarekin zeharkatzea dabusti gabe, hau da, parte-hartzaileek ezingo dute lurra ukitu. Gurutzatzeko modua bilatu beharko dute gelaren beste ertzean bukatu arte.</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
- Talde baten parte-hartzaile batek lurra ikutzen badu berriz hasi beharko dira.			


3. Dinamika: Puxika euritea			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	puxikak	10 minutu
HELBURUAK	Denbora-espazioaren pertzepzioa eta arintasuna lortzea		
AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Parte-hartzaileak taldeka jarriko dira. Talde bakoitza airean mantendu beharko duten puxika batekin hasiko da, denbora mugatu batean kolpetxoak emanaz. Begiraleak puxikak gehituko ditu pixkanaka, talde bakoitzean parte-hartzaile bakoitzak puxika gehiago egon daitezten. Behin honako hau lortu dutela, kolore ezberdinetako puxikak botako dira airera eta monitoreak kolore bat esango du. Parte-hartzaileak puxika hori eskuekin hartzen saiatu beharko dira</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
Hiru puxikak lurra ukitzen dutenean, taldea eliminatuta egongo da.		<ul style="list-style-type: none"> - Esku batekin - Oinarekin -Buruarekin 	

4. Dinamika: Uztaia atera			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Blokeak eta uztaia	10 minutu
HELBURUAK	Koordinazioa eta komunikazioa binaka lantzea		
AZALPENA			
<p>Uztai baten barruan bloke bat jarriko da, eta parte-hartzaileek, komunikazioaren eta koordinazioaren bitartez, eskuak erabili gabe uztaia atera beharko dute. Uztaia ateratzen lortzen dutenean, bloke bat gehituko diogu erronkari, hau da, bi bloke egongodira erdian (bata bestearen gainean). Horrela, hurrenez hurren, uztaia barruan sei bloke arte.</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Ezin izango dira eskual erabili - Blokeren bat jausten bada berriro hasi beharko dira. 		<ul style="list-style-type: none"> - Blokeak gehitu 	

5. Dinamika: Guztiok batera			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Pilota	5 minutu
HELBURUAK	Koordinazio eta pertzepzio espaziala binaka lantzea		
AZALPENA			
Binaka, parte-hartzaileak lurrian eseriko dira, bizkarra emanez. Pilota biguna izango dute helduta haien bizkarrekin. Erronka, pilota lurrera erori gabe batera altxatzea izango da. Behin erronka lortu dutela, parte-hartzaileen bizkarren artean bi pilota jarriko dira eta saiatu beharko dira berriz altxatzen.			
ARAUAK		ALDAERAK	
- Ezin izango dute pilota eskuekin hartu.		- Bi pilotekin	

6. Dinamika: Trena puxikekin			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Puxikak, konoak, bi uztai eta blokeak	10 minutu
HELBURUAK	Koordinazioa eta komunikazioa lantzea		
AZALPENA		MARRAZKIA	
Taldea bakoitzeko parte-hartzaile guztiak ilaran jarriko dira, aurrean duten lagunaren sorbaldetatik helduta. Bakoitzaren erdian puxika bat jarriko da, aurrean dagoenaren bizkarrari eta atzean dagoenaren bularrari lotuta. Helburua zirkuitua puxikak lurrera erori gabe egitea da.			
ARAUAK		ALDAERAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Ezin izango dituzte eskuak erabili puxika heltzeko - Puxikaren bat lurrera jausten bada, hasieratik hasi beharko dira. 		<ul style="list-style-type: none"> - Atzerantz ibiltzen - Parte-hartzaileen ordena aldatu 	

7. Dinamika: Pilotak elkar			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Pilota bigunak	5 minutu
HELBURUAK	Koordinazio eta pertzepzio espaziala binaka lantzea		
AZALPENA			
<p>Parte hartzaileek baloi bana izango dute eskuan eta bikotekideari pasatu beharko diote, bikotekideak beraiei pasatzen dien bitartean. Komunikatu egin beharko dira eta saiatu pilotek talka egin ez dezaten. Helburua faltarik gabe hiru pase jarraian egitea da. Lortzen dutenean, bost pasera iritsi beharko dira erronka lortzeko.</p>			
ARAUAK			
<ul style="list-style-type: none"> - Pilotak ezin du boterik eman. - Pase bat txarto ateratzen bada, berriz hasi beharko dira kontatzen. 			

8. Dinamika: Iluntasuna			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Bi edo hiru talde	Begiak eztaltzeko bendak, pilotak, konoak, blokeak eta altxorra	20 minutu
HELBURUAK	Talde lanean aritzea eta taldekideengan konfidantza sustatzea		
AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Parte-hartzaileak taldeka eta ilaratan jarriko dira. Talde bakoitzak altxorra izango den objektu bat lortu beharko du (baloi bat). Lerroetako lehenengo partaideek ezin izango dute ikusi. Beraz, altxorra lortzeko, azken partaideak, hau da, ikus dezakeenak, aurreko guztiak orientatu beharko ditu kode sekretu baten bidez.</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Ilara ezin izango da hautsi - Parte-hartzaileek ezin izango dute hitz egin 		<p>Altxorra aurkitu ondoren, ilarako lehen parte-hartzailea amaieran jarriko da, ilara berriro altxorren bila gidatzeko.</p>	

9. Dinamika: Masajeak (Erlaxazioa)			
TOKIA	ANTOLAKETA	MATERIALA	DENBORA
Aretoa	Binaka	Pilotak, musika, margoak eta ebaluazio fixak	15 minutu
HELBURUAK	Erlaxatzea		
AZALPENA			
<p>Erlaxatzeko musika jarriko da eta binaka, parte hartzaile bat lurreak etza egingo da buruz behera eta besteak, pilotarekin gurputz osotik (etzanda dagoenak nahi badu) masaje egingo dio.</p> <p>Behin dinamika amaitu dugula eta parte-hartzaileak erlaxatu direla, borobil batean eseriko dira eta saioari buruzko koebaluazio txiki bat egingo da. Parte-hartzaileak nola sentitu diren adieraziko dute eta gehien gustatu zaien jolasa aipatuko dute. Ondoren, diana ebaluatzailea beteko dute.</p>			
ARAUAK		ALDAERAK	
		<ul style="list-style-type: none"> - Rolak aldatu - Eskuekin eta eserita 	


II Eranskina: Saioaren sekuentzia fitxa

SAIOAREN SEKUENTZIA			
		MATERIALA	DENBORA
1. Dinamika	Mugitzen diren uztaiak	3 Uztaia	10 minutu
2. Dinamika	Ibaia zeharkatu	Blokeak	10 minutu
3. Dinamika	Puxika euritea	8 puxika	10 minutu
4. Dinamika	Uztaia atera	Blokeak eta uztaia	10 minutu
5. Dinamika	Guztiak batera altxatu	Pilota bigunak	5 minutu
6. Dinamika	Puxiken trenak	Puxikak, konoak, bi uztaia eta blokeak	15 minutu
7. Dinamika	Pilotak elkar	Pilota bigunak	5 minutu
8. Dinamika	Iluntasuna	Begiak ezaltzeko bendak, pilotak, konoak, blokeak eta altxorra	20 minutu
9. Dinamika	Masajeak eta ebaluazioa	Ebaluazio fitzak, margoak musika eta pilotak	15 minutu

III Eranskina: Ebaluazio diana

IZENA: _____

EBALUAZIO DIANA



<p>Zein izan da gehien gustatu zaidan dinamika?</p>	<hr/> <hr/> <hr/>
<p>Zein izan da gutxien gustatu zaidan dinamika?</p>	<hr/> <hr/> <hr/>
<p>Zerbait aldatuko nuke? Zer?</p>	<hr/> <hr/> <hr/>

IV Eranskina: Narrazio etnografikoak (ikertzailearen egunerokoa)

1. EGUNA (15/12/21)

Gaur bilera bat izan dut Ramón Bajo ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin. Urduri samar egon naiz, Unibertsitatetik kanpoko prozesu honetan norbaitekin izan dudana lehen kontaktua izan delako.

Nire asmoa nire praktika-aldian ikaskuntza-zerbitzua ematea denez, eta ikastetxe honetako irakasleak eskolaz kanpoko jardueren arduradunak ez direnez, ezin da nire proposamena ikastetxe honekin gauzatu. Baina bildu naizen irakasleak “GOIAN” elkartearen informazio guztia emateaz gain, telefonoa eta posta elektronikoa ere eskaini dizkit, haiekin harremanetan jar nadin eta proiektu honen beharrak zeintzuk diren barrutik ikusteko. Horrela, nire ikaskuntza-zerbitzua gauzatu ahal izango dut eta proiektuak dituzten beharrak asetzeko aukera izango dute. Izan ere, beraiek eramaten dituzte auzo honetako kirol anitzeko eta soziokulturaleko jarduerak guztiak.

2. EGUNA (07/01/2022)

Hilabete osoa daramat “Goian” proiektuarekin harremanetan jartzen saiatzen, eta ez dut inorekin hitz egiterik lortu, ez posta elektronikoz, ezta telefonoz ere. Nire interesak beste elkarte batzuetara gehiago egokitu daitezkeenez eta elkarte honekin hitzordua jartzeko zailtasunak ditudanez, gaixotasunei buruzko elkarteekin harremanetan jartzea erabaki dut. Beraz, ASPACE elkarteari idatzi diot nor naizen adieraziz, zerbitzuaren ikaskuntzari buruzko nire proposamena helaraziz eta haien beharrak zein diren galdetuz.

3. EGUNA (20/01/2022)

Pixka bat nahigabetuta sentitzen naiz, ASPACE elkartera bidali nuen mezuaz gain, telefono-dei pare bat egin ditudalako eta ez dudalako erantzunik jaso. Gainera, estutasun pixka bat sentitzen ari naiz, praktikak astebete barru hasten ditudalako eta oraindik ez dudalako inolako elkarerekin hitz egin nire ikaskuntza-zerbitzua praktikan jartzeko. Beraz, beste aukera batzuk pentsatuz eta bilatuz, gogoratu dut bigarren mailan haurren minbiziari buruzko lan bat egiten dugula, zailtasunak ikaskuntzan eta garapenean irakasgai. Berrero bilatu dut elkarte horri buruzko informazioa, eta mezu bat bidali dut, garuneko paralisiaren aurkako elkartera bidali nuen bezalako mezua, hain zuzen ere.

Gaur arratsaldean bertan jaso dut nire tutoreak bidalitako mezu bat, ASPACetik boluntario bila dabilatzela jakinarazi diotela esan dut. Mezua ikusi bezain laster, tutoretza bat eskatu dut eta erakunde bat aurkitzeko sortzen ari zaizkidan arazo guztiak kontatu dizkiot. Nire arazoa helarazi diodanean, berak garun paralisiaren elkartearekin hitz egin duela helarazi dit.

4. EGUNA (04/02/2022)

Gaur arratsaldean, praktiketarik irten naizenean, haurren minbiziaren aurkako elkartearen (Aspanafoa) mezu bat jaso dut. Mezu horretan, erakundeko gizarte-langileak, barkamena eskatu zidan atzerapenagatik, eta telefono-zenbakia eskatu zidan lehenbailehen harremanetan jartzeko.

Nire telefono-zenbakia bidali eta handik pixka batera, nire tutoreak mezu bat bidali dit, ASPACE erakundearekin hitzordua egin duela esanez. Beraz, hainbeste esfortzu egin ondoren, bi erakunde ditut aukeratzeko nire ikaskuntza-zerbitzua praktikan jartzeko.

Bilera bat izan dut berriro nire tutorearekin, prozesuaren puntu honetan gida nazan eta, horrela, zer egin erabakitzeko. Ondorioztatu dugu, puntu honetan egonda, hobe dela elkarte bakoitzarekin bilera bat egitea eta bi proposamenak aurrean izanda erabakitzea zer komeni zaidan gehien eta zer nahiago dudan egitea.

5. EGUNA (08/02/2022)

Gaur arratsaldean bilera bat izan dut ASPACEko gizarte-langilearekin. Langile horrek antolatzen eta sortzen ditu erakunde horretako jendearentzako jarduera guztien ordutegiak. Haiek zer egin ohi duten eta nire proposamenerako zer egun dauden prest esan digu pixka bat. Azaldu digunez, oso interesgarria eta pozgarria da horrelako proposamenak egitea. Nire tutorea bilera horretan egon da, eta niri bezala, oso interesgarria iruditu zaio.

Bileratik irteteen esan dugu proposamen horri baietz edo ezetz esan aurretik hobe dela bihar ASPANAFOA elkartearekin bilera izan arte itxarotea. Bi proposamenak esku artean ditudanean, bien alde onak eta txarrak ikusi ahal izango ditut eta, horrela, gehien interesatzen zaidana aukeratu ahal izango dut.

6. EGUNA (08/02/2022)

Atzo bezala, gaur ere bilera bat izan dut, baina oraingoan ASPANAFOA elkartearekin. Ez naiz egon gainerako bileretan bezain urduri, duela pare bat urte elkarrizketa bat izan nuelako gaur ikusi dudan gizarte-langile berarekin. Nire proposamena praktikan jartzeko elkarte bat aurkitzea prozesu zaila eta luzea izaten ari den arren, motibatuta sentitzen naiz eta nire ideia guztiak bat datozen leku bat aurkitzeko gogoz.

ASPANAFOAko gizarte-langilearekin izandako bilera osoan oso babestuta sentitu naiz. Nire proposamena zein den kontatzeko eskatu dit. Ikaskuntza-zerbitzua praktikan jartzearekin zer bilatzen dudan pixka bat kontatu ondoren, berak esan dit ez dagoela arazorik eta benetan eskertzen dutela. Gainera, nik egin nahi dudan guztia idatzi batean kontatzeko eskatu dit, berak ez baitu horrelako jarduerarik onarpena ematen. Idazki hori elkarte hori antolatzen duen batzordeari zuzenduko zaio, hau da, erakunde hori osatzen duten haurren guraso askori.

Horrez gain, ahalik eta modurik hezienean jakinarazi nahi izan diot proposamena aurrera eramateko denbora tarte zehatz bat daukadala, baina proiektu hau beraiekin egitea gustatuko litzaidakeela. Beraz, erantzun azkar bat behar nuke, ea ikaskuntza-zerbitzua haiekin egin ahal izango dudan ala ez jakiteko. Esan dit ez dagoela arazorik, bere ustez, proposamen idatzia izanda, hurrengo egunerako erantzuna izango genuela.

Bi bilerak izan ondoren, dena nahiko argi daukadala uste dut. Nire ikaskuntza-zerbitzua ASPANAFOA elkartearekin egitea erabaki dut, hainbat arrazoirengatik. Hasteko, ordutegi eta egun askatasuna dudalako aukeratzeko. Horretaz gain, super eroso sentitu naiz. Hori gutxi balitz, etorkizunean ospitale batean tutore gisa lan egitea gustatuko litzaidake ospitaleratuta dauden haurrekin lan egiteko, eta horietako gehienak haurren onkologiako pazienteak izan ohi dira. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, eskolan eman ditudan urte guztietan ikusi ditut down sindromedun ikaskideak, zailtasun psikologikoak zituztenak, eta minbizia izan zuen lagun bat ere izan nuen. Gorputz Hezkuntzako saioetan, gehienetan bankuan eserita geratu behar izaten zen, irakasleak proposatutako dinamikak ezin zituelako egin. Uste dut mundu guztiak duela Gorputz Hezkuntzako saioetan parte hartzeko eta harremanak izateko eskubidea, eta uste dut saio guztiak taldearen ezaugarrietara egokituta egon daitezkeela, inor kanpoan utzi gabe. Beraz,

nire tutorearekin eta beste elkarteko gizarte-langilearekin hitz egin beharko dut proposamena onartzen didaten unean nire erabakiaren berri emateko.

7. EGUNA (09/02/2022)

Gaur goizean nire proposamena nola idatzi pentsatzen hasi naiz. Esparru teorikoa egiteko, artikulua askotan irakurri dudana bezala, minbizia duten edo izan duten haurrek zailtasunak izaten dituzte berriz ere eskolan sartzeko, baita edozein motatako harremanak izateko ere. Beraz, ahalegin fisiko handirik behar ez duten dinamika eta ariketekin jolas kooperatiboak buruzko tailer bat egitea erabaki dut, elkarte honetako haur batzuk tratamenduan egon baitaitezke.

Behin buruan egin nahi nuenaren eskema egitea lortu ondoren, idazteari ekin diot. Hasteko, sarrera bat idatzi dut niri buruz eta ikasteko zerbitzu bati buruz. Ondoren, nire proposamenaren zergatia azaldu dut, eta kritika txiki bat egin dut: gorputz-hezkuntzako irakasle askok ez dituzte beren saioak talde osora egokitzen, ikasle bakoitzaren premiak kontuan hartuta. Eta amaitzeko, ezin izan diet programazio bat helarazi, tailerrean parte har lezaketena ikasleentzako ezaugarri guztiak falta zaizkidalako, eta ez dugu tailerraren iraupena koadratu. Beraz, tailerrean egin genitzakeen ariketa moten adibide pare bat jarri ditut.

8. EGUNA (11/02/2022)

Gaur arratsaldean Aspanafoako gizarte-langilearen dei bat jaso dut. Eskerrak eman dizkit proposamenagatik, eta tailerrean dagoen elkarteko zuzendaritza batzordeak onartu egin duela nire ikaskuntza zerbitzua jakinarazi dit. Informazio hori edukita, mezua bidali diot Aspace-ri eskerrak emanez, baina nire proposamena gauzatzeko leku bat aurkitu izan dudala.

Gainera, beste hitzordu bat hitzartu dut Aspanafoarekin, tailerra noiz egingo dugun zehazteko. Pozgarria izan da jakitea badudala entitate bat lan egiteko eta proposamen bat praktikan jartzeko. Oso prozesu luzea eta nahasia izan da, baina azkenean, erabakirik onena hartu dudala uste dut.

9. EGUNA (23/02/2022)

Gaur arratsaldean bilera izan dut Aspanafoako gizarte-langilearekin, tailerrarentzako data bat jartzeko. Nire idazkian, bi saioko tailer bat proposatu nuen, baina

zuzendaritza-batzordetik esan didatenez, oso zaila izango litzateke bi egunetan familiekin bat egitea. Beraz, egun bakar bat koadratzea erabaki dugu.

Ikaskuntza-zerbitzu honek epemuga duenez eta lana idatziz egin behar dudanez, aste santua baino lehen data koadratzea erabaki dugu. Bileran, gizarte-langileak familiei bidaliko dizkien bi data proposatu ditugu, egingo dugunaren berri emateko. Familiek astebete izango dute zein egun nahiago duten erabakitzeko, eta tailerra jende gehiago dagoen egunean egingo da.

10. EGUNA (02/03/2022)

Aspanafoa-ko gizarte-langileak esan dit familiek nahiago dutela tailerra apirilaren 3an egin. Beraz, hurrengo bileran parte-hartzaile guztien ezaugarriak bilduko ditut programazioa egiteko.

Oso hunkituta nago lan guztia forma hartzen hasi delako. Hala ere, apur bat estututa nago lan honetan ezarritako epeak betetzeko. Gradu Amaierako Lan honen hasieran arreta handiagoa jarri beharko nukeela uste dut, eta data batzuk jarri beharko nituzkeela entitate honekin egin dudana baino askoz lehenago. Horrela, denbora gehiago izango nuke lan teorikoa egiteko atal praktikoa egin ondoren.

11. EGUNA (10/03/2022)

Gaur tailerraren aurretik izango dugun azken bileretako bat izan dugu. Hitzordu honetan, gizarte-langileak minbizia izan duten parte-hartzaile guztien diagnostikoak eta tratamenduak, gaixotasuna noiz jasan zuten eta ariketa fisikoa egiteko orduan izan ditzaketen zailtasunak azaldu dizkit.

Zortzi izango dira tailerrera joango diren parte-hartzaileak, eta horietatik lauk minbizia izan dute bizitzako uneren batean. Gainerakoak, hauen anai-arrebak dira.

Horietako hiruk oso txikiak zirenean jasan zuten gaixotasun hau, beraz, mentalki ez dituzten ondoriorik jasan, ez direlako gogoratzen bizi izandako prozesuaz, baina fisikoki, orbainak zaindu behar dituzte. Beraz, ezin dituzten mugimendu zakarrik egin. Honako hauek dira diagnostikoak: Tumore adrenokortikala, Biriketako blastoma eta Leuzemia.

Aldiz, gaixotasun hori izan duen beste haurrak tratamendua amaitu berri du. Horren ondorioz, ezin du esfortsu fisiko askorik egin. Gainera, psikologikoki nahiko baxu ikusten zaio eta bera bakarrik baztertzen da. Honen diagnostikoa garuneko tumorea da.

12. EGUNA (12/03/2022)

Dagoeneko baditut beharrezkoak diren datu guztiak talde txiki honentzako saio inklusibo baten sekuentzia prestatzeko. Beraz, bildutako informazio guztiarekin, ahalegin fisiko handirik behar ez duten jolas kooperatiboetan oinarritutako tailer bat egitea erabaki dut. Joko batzuk beti egin izan diren bezala egingo dira, ez baitute esfortzu handirik eskatzen; beste batzuk, ordea, aldatu egin dira, parte-hartzaile guztiek egin ahal izan ditzaten.

Ariketa guztiak denborarekin, materialarekin, espazioarekin eta helburuekin lotuta egin ditut taula guztiak, baina ez zait nahiko motibagarria eta originala iruditzen haurrentzat. Zalantza pixka bat emateko eta dibertigarriagoa eta motibagarriagoa egiteko, pirata giroan sartzea erabaki dut. Parte-hartzaileek taldeak osatu beharko dituzte, eta izen bat jarri beharko diote beren “tripulazioari”, denok hobeto ezagutzera bideratutako lehen dinamika egin ondoren.

Saio osoan zehar piratak balira bezala jokatu dute eta jolas bakoitzean geratzen diren posizioaren arabera puntuak pilatzen joan beharko dute. Tailerrari ziurgabetasun eta motibazio handiagoa ematen jarraitzeko, taldeak egin ondoren, azken jolasean taldeka bilatu beharko duten altxor ezkutu bat dagoela esango zaie.

Pentsatu dut altxor on bat gozoki poltsa bat izan zitekeela bakoitzarentzat, altxor itxurako kutxa batean sartuta. Baina, parte-hartzailearen bat bere etxera burumakur joan ez dadin eta guztiek esperientzia honetaz berdin goza dezaten, uste dut komenigarria dela guztiek poltsatxo bat izatea altxorraren barruan, nahiz eta bere taldea ez izan aurkitu duena.

Horretaz gain, dibertigarria izan daiteke taldeen izenak kartulina batean idaztea eta taula baten bitartez joko bakoitza egin ondoren bertan puntuazioak jartzea, ranking bat egin dezaten puntuaziorik handiena duen taldea nor den jakiteko.

13. EGUNA (17/03/2022)

Gaur Aspanafoako gizarte-langilearekin azkenengo bilera izan dut, bi aste barru tailerra egin aurretik. Urduri samar nago, ez baitakit behar dudan material guztia izango dudan prestatu ditudan jolasetarako.

Gizarte-langileak esan didanez, beraiek ez dute materialik nik prestatu ditudan jolasak egiteko, baina, era berean, esan dit beharrezkoa bada elkarteak berak har dezakeela saioa egiteko behar den materiala erosteko ardura. Hori esan didanean, gaizki sentitu naiz, ez dudalako gastu bat izan nahi beraientzat. Horregatik, tutoreari galdetu diot ea posible izango litzatekeen ostiralean gimnasioko materiala jaso eta astelehenean itzultzea.

Horretaz gain, tailerra egiteko erabiliko dugun espazioaz hitz egiten aritu gara. Saiatu gara ikustera joaten nolakoa den ikusteko, baina beste elkarte batek erabiltzen zegoen momentu horretan, beraz, gizarte-langileak azaldu dit nola den. Deskribapenagatik, esan dit nahiko espazio zabala dela, aulki eta mahai batzuk dituela, aretoaren alboetan jarrita egon ohi direnak, eta arbel bat.

14. EGUNA (19/03/2022)

Gaur arratsaldean, gradu-amaierako lanaren tutorearekin egin dut hitzordua bideo-dei baten bidez, material faltaren egoeraz hitz egiteko. Jolasak prestatzerako orduan, material asko behar ez duten dinamikak prestatzen saiatu naiz, baina hala ere, uztaiak, blokeak eta bi pilota bigun behar izango ditut saioa aurrera eramateko.

Materiala astebururako behar dudanez, ostiralean jaso dezaket unibertsitateko gimnasiotik eta astelehenean itzuli. Gainerako materialak, begietarako bendak adibidez, ni lor ditzaket etxeko izara zahar bat moztuz edo maskarak erabiliz.

15. EGUNA (03/04/2022)

Atzo arratsaldean gozokiak erosi nituen eta altxor itxurako kutxa sortu nuen gaur dena prest izateko. Gainera, dinamikak ondo aztertzen aritu nintzen, gaur azaltzeko momentuan inolako zalantzarik ez izateko eta araurik ez ahazteko.

Gaur goizean, tailerra egin baino ordu erdi lehenago geratu naiz gizarte-langilearekin, dinamikak prestatzen eta puxikak puzten joateko. Altxorra aretotik ezkutatzeko ere aprobe txatu dut, haurrek ez ikusteko.

Lehenengoak iristen elkarteko zuzendaritza-taldeko presidentea eta haren alaba izan dira. Gainerako parte-hartzaileen zain geunden bitartean, esan dit ekimen bikaina iruditzen zaiola, eta eskerrak eman dizkit beraiekin gauzatzeagatik. Gainera, guraso guztien telefono zenbakiak bidali dizkit, tailerrean arazoren bat sortuko balitz, haiekin harremanetan jartzeko. Hori gutxi balitz, saioan zehar ateratzen ditudan argazki guztiak bidaltzeko eskatu dit, ondoren haiek beren sare sozialetan argitaratzeko aukera izan dezaten, baita nik idatzitako testu txiki bat ere, zer egin dugun azaltzeko.

Lehenengo neskatoa iritsi denetik bost minutura, bigarrena iritsi da gurasoekin. Haiekin ere hitz egin ahal izan dut, eta tailer honen helburuak azaldu dizkiet pixka bat. Horretaz aparte, esan didate elkarteari esker oso lagunduak sentitu direla eta beste pertsona batzuekin enpatizatu ahal izan dutela, haien alabak minbizi kasu berezi samarra izan baitzuen. Amak ere baieztatu dit honak jarduera bezalako askoren ondorioz haurrak eta gurasoak gehiago elkartzen direla eta prozesu osoa nola bizitzen ari diren hitz egin dezaketela.

Hizketan ari ginela, konturatu naiz hamabost minutu igaro direla geratu garenetik, eta oraindik ez dira haur gehiagorik agertu; beraz, urduri samar jartzen hasi naiz, bi parte-hartzailerekin ezinezkoa baitzen jolasak nik prestatutako metodologiarekin aurrera eramatea. Gizarte-langileak etortzeko falta ziren bi familiei deitu die, eta horietako batek baieztatu dio azkenean ezin izango zutela gure topaketara joan. Beste familiak, ordea, ez dio deiei erantzun. Beraz, bost minutu gehiago itxaron dugu eta tailerrari hasiera eman diogu.

Azken une honetan, dinamikaren metodologia aldatzea bururatu zait, ezinezkoa baitzen taldeetan jolas kooperatiboak egitea bi parte hartzaileekin. Pentsatutako jolas guztiak erronka gisa erabil genitzakeela ondorioztatu dut, hau da, altxorra aurkitzeko taldekako puntuak pilatu beharrean, bi partaideek erronka kooperatiboak gainditu beharko lituzkete altxorra lortzeko. Bi neskei ideia ona iruditu zaie eta hauek motibatzea lortu dut.

Tailerra egiten ari ginela, konturatu naiz denbora asko soberan geratuko zitzaigula; izan ere, prestatutako jolasek askoz denbora gehiago behar dute lau taldeentzat bikote batentzat baino. Beraz, haurrak erronkak egiten zituzten bitartean, beste dinamika batzuk

gehitu ditut altxorra bilatu eta lasaitasunera itzuli aurretik, hau da, azken bi dinamikak baino lehen.

Etsipen handia izan da niretzat eta gauzak azkar eta korrika egin ditudala sentitu dut azken unean. Baina gero konturatu naiz gauza hauek edonori gerta dakizkiokeela eta gure irudimen guztia erabiliz konponbide azkar bat bilatzen ikasi behar dugula.

Prestatutako dinamika guztiak eta momentuan bururatu zaizkidan beste bi gauzatu ondoren, ebaluazioa egin dugu. Prozesu osoa, tailerraren helburuak eta parte-hartzaileak nola sentitu diren ebaluatzeko, hainbat metodo erabili ditugu.

Hasteko, ahozko ebaluazio bat egin dugu, saio osoan nola sentitu diren azaltzeko. Bi parte-hartzaileek esan didate oso ondo pasatu dutela eta espero zutena baino originalagoa izan dela. Baina aldi berean oso laburra egin zaiela, hurrengorako gustatuko zitzaiela jolasteko denbora gehiago izatea. Gainera, eskerrak eman dizkidate gozokien poltsatxoengatik eta dena beraientzat prestatzeagatik.

Ahozko ebaluazioaren ondoren, autoebaluaziorako diana bat duen fitxa txiki bat banatu diet bakoitzari. Diana horretan, bakoitzak dianaren zati bat margotu beharko du, jarritako helburua bete duten ala ez adieraziz. Zati bakoitzak 1etik 4ra bitarteko zenbaki bat du (lehen zenbakiak adierazten du ez dutela helburua bete, eta laugarren zenbakiak adierazten du erabat lortu dutela). Biek helburu guztiak bete dituzte, beraz, bientzako kalifikazio onak ikus ditzakegu. Dianaz gain, hiru galdera izango dituzte erantzuteko (gehien gustatu zaiena, gutxien gustatu zaiena eta aldatuko luketena). Erantzunak bat datoz koebaluazioan ahoz esandakoarekin.

Amaieran, eskerrak eman dizkiet gurasoei aukera hau emateagatik, eta pozik alde egin dut. Lan handia behar izan duen esperientzia izan bada ere, berriro errepikatuko nuke, zalantzarik gabe. Pozgarria da ikustea zure lanak zerbaiterako balio duela eta jendea poztan duela.

V Eranskina: Ebaluazio dianaren bi adibide.

EBALUAZIO DIANA

1 2 3 4

Zein izan da gehien gustatu zaidan dinamika?	Alzorra aurkitzea
Zein izan da gutxiengin gustatu zaidan dinamika?	Uztaila ateratzearen jolasak
Zerbaiz aldatuko nuke? Zer?	Denb Denbora geiago jolasteko

EBALUAZIO DIANA

1 2 3 4

Zein izan da gehien gustatu zaidan dinamika?	Euzkera jolasa
Zein izan da gutxiengin gustatu zaidan dinamika?	Gustiak gustatu jarrait
Zerbaiz aldatuko nuke? Zer?	Ez

VI Eranskina: Tailerrean ateratako argazkiak

